goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-12-09
EGUBAKOITZA
489. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Ruper Ordorika Elgetan

Irazokirekin arituko da etzi Espaloian | **24**

Ruper Ordorika. | OSKAR ALEGRIA

Urte osoan bezala, Gabonei ere neurria hartuko diete Debagoieneko familiek | **2**

Bergarako herriak Arrasate epaituko du hilaren 28an | **8**

Bailarako neskek etxean hartuko dituzte Reala eta Athletic | **21**

Berrerabilitako materiala Gabonak apaintzeko

Kontsumo arduragabeari aurre egiteko asmoz, Oñatiko Udalak CDekin eta plastikozko botilekin eginiko apaingarriak erabiliko ditu herria Gabonez janzteko | **14**

Oñatiko Txantxiku ikastolako DBHko ikasleak Gabonetako apaingarriak prestatzen berrerabilitako plastikozko botilak eta CDak erabilita. | MONIKA BELASTEGI

Nubi eta lesbaa elkarteek laga egin dute jarduna

Bana boluntariok ziharduen azken boladan lanean | **5**

Nagusi gehienek hartu dute txertoa

Bailarako 65 urtetik gorakoen %72k hartu dute

Osasun Sailak jarritako helburua zen 65 urtetik gorakoen %65ek, gutxienez, har zezatela gripearen aurkako txertoa. Bada, Debagoienean, multzo horretako %72k baino gehiagok hartu dute. EAEko batez bestekoa %62 inguru izan da. Herririk herri, Antzuola nabarmentzen da: %98k hartu dute txertoa. Oñatik eta Elgetak ere %70eko muga gainditu dute. %65ekoaren azpitik Arrasate eta Eskoriatza geratu dira. | **4**

SINADURAK

ANDONI URZELAI | 6

6 | ASIER ALKORTA
NEREA MAKAZAGA | 11

15 | OIER ETXEBARRIA
FERNANDO LETE | 17

32 | AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA **2** | DEBAGOIENA **4** | IRITZIA **6** | GUTUNAK **6** | ELKARRIZKETA **8** | HERRIAK **11** | KIROLA **20** | KULTURA **23** | ZURE IRAGARKIAK **27** | TELEBISTA-IRRATIA **28** | ESKELAK **29** | NON-ZER **30**

OSASUN MENTALEAN ESKUHARTZEA

Modalitatea: Bertaratu gabeko ikastaroa (Ez-presentziala).
Iraupena: 200 ordu (2012ko otsailaren 1etik ekainaren 29ra arte).
Aurrematrikula: 2011ko abenduaren 1etik 31ra arte (internetez).
Matrikula epea: 2012ko urtarrilaren 9tik 31ra arte.

Langile eta langabetuentzat prestakuntza ikastaroak %100ean diruz lagunduta DOAN!

Informazioa eta Matrikula
UNED-Bergara • San Martin Agirre plaza 4
20570 • Bergara
Tel.: 943 76 90 33 • *csoriano@bergara.uned.es*
www.uned.es/ca-bergara (“gure ikastaroak” atala)

UNED BERGARA · Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua Servicio Vasco de Empleo · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO EMPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES · HOBETUZ

Gabonei ere neurria hartuko diete familiek

▸ Iazko antzera gastatuko du jende gehienak

▸ Krisia hasi zenetik, kontsumoa txikitu egin da

▸ Ahalegintxoa egiten du jendeak, ondo ospatzeko

Jose Mari Salegi. | LEIRE KORTABARRIA

Amagoia Irazabal. | LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Aurtengo Gabonak ere ahalik eta alaien eta ondoen emango dituzte Debagoieneko familiek, eta, egun batzuetan, gastuari urtean zehar baino gutxiago begiratuko diote.

Bailarako merkatariek esaten dutenez, oraindik goiz samar da Gabonetako erosketetarako, eta egunotako jaiegunak eta gero hasiko da jende gehiena; baina erosketak azken urteotako bidetik joango direla aurreikus daiteke. Hala, gutxiago gastatzeko joera orokortu da azken urteotan, krisia hasi zenetik, baina Gabonetan jende gehienak ahalegin ekonomiko berezi bat egingo du.

Debagoiena ez da salbuespena izango horretan. Deloitte aholkularitza enpresak egindako Gabonetako kontsumoaren gaineko ikerketaren arabera, Hego Euskal Herriko eta Espainiako familia bakoitzak, batez beste, 668 euro gastatuko ditu, iaz baino %1,98 gehiago (orduan, 655 zen batez bestekoa). Hiru urtean lehenengo aldiz handituko da Eguberri jaietako gastua. Espainia krisian sartuta egon arren, gehien gastatzen duen Europako laugarren herrialdea izango da aurten.

Opari pratikoaren bila

Gastu handiena oparietan egiten dute kontsumitzaileek: Deloitteren datuen arabera, aurrekontuaren %59. Dena dela, ohiturak zertxobait aldatu dira azken urteotan. Deloitte enpresaren txostenak dioenez, kontsumitzailea opari praktikoaren bila joaten da, eta "ia guztiz desagertu da behar ez diren gauzak erosteko joera". Resusta Karrikiri opari, altzari eta dekorazio dendako Arantza Arantzabalek ere ikusi du hori: "Etxerako gauzetan, opari praktikoen bila etortzen dira asko: batek manta bat enkargatu zigun aurrekoan; aldizkariak gordetzeko altzaria, aiztoa eta bere taula... Etxetik joan berri den batek beharko dituen gauzak oparitzeko aprobetxatzen dute", esaten du. Baina, horrez gain, "beste batzuek gutiziagatik, kapritxoz ere erosten dute".

Arantzabalen esanetan, orain-dik ere "krisia igartzen da, eta iaz nabaritu zen: jendeak ez zituen gauza garestiak erosi nahi, merkeagoak gurago zituen". Aurrekontu txikiagoei oso ondo doakien ohitura bat ere ikusi du: "Jende askok *lagun ikusezina* delakoa egiten du. Dena dela, nire ustez, hori jolasteko egiten dute, eta gero opari serioagoa erosten dute".

Arropa-dendako ugazaba Jorge Markiegi uste berekoa da: "Lasai dago kontua. Salmenta batzuk egin ditugu Gabonetarako, baina zubiaren ondoren hasiko da jendea gehiago erosten. Normalean, abendu erdialdean hasten dira Olentzerotarako opariak erosten".

Arantza Arantzabal. | LEIRE KORTABARRIA

Jorge Markiegi. | LEIRE KORTABARRIA

Dekorazioa, gogora ekartzeko

Arrasateko dendari horren iritziz, "aurten iaz baino gehiago igartzen da krisia; jendeak bereganatu egin du kontsumoaren gainbehera, eta hala gertatzen ari da. Hala ere, Gabonetarako jendeak aparteko gastutxoa egiten du".

Salmentak ez dira lehengoak bezalakoak: "Gehienek jertseak, alkandorak... aukeratzen dituzte. Krisi aurretik, gehiago erosten zuten", esaten du Jorge Markiegik.

Gabonetako apaingarriek zertxobait laguntzen dute: "Dekorazio horrekin, behintzat, Gabonak datozela akordatzen da jendea".

Kiroletako artikuluak saltzen ditu Maite Iglesiasek, eta berak esaten duenez, jendeak gastatzen du, "baina oparia norendako den begiratzen dio: mutil edo neska-lagunarendako baldin bada, gehiago gastatzen du koinatuarendako edo amaginarrebarendako bada baino. Bikotekidearendako denean, jendeari ez zaio axola gehiago gastatzea", esaten du. Gabonetako salmentak ondo hasi direla diosku: "Joan den egubakoitzetik hasi zen jendea Gabonetarako erosten", esaten du.

Iglesiasen iritziz, dena dela, "krisia oraindik igartzen da, bai. Promozioek-eta asko laguntzen dute".

Euskarazko jostailuak

Deloitteren Gabonetako kontsumoaren inguruko ikerketak dioenez, opari desiratuenak liburuak dira: kontsumitzaileen ia erdiek (%48) gura dituzte. Bigarrenak arropa eta zapatak dira (%42), eta hirugarrenak, dirua (%39). Baina gehien erosten den oparia lurrinak eta kosmetikoak dira (erosleen %56ek aukeratzen dituzte); bigarrenak, arropa eta zapatak (%43), eta hirugarrenak, liburuak (%41).

Umeendako opariei dagokienez, erosleen %39ek eskola-aurreko adinetako umeendako jostailuak erosten dituzte; bigarren erosienak jokoak eta puzzleak dira (%29), eta gero, panpinak (%23). Nerabeendako, bideo-jokoak erosten dira gehien (%22); gero, liburuak (%12). Balore hezitzaileak dituzten jostailuak gero eta gehiago saltzen dira eta horiek izango dira aurtengo izarrak. Aukeratutako jostailua edo jokoa aukeratzen dela, euskarazko eskaintza dagoeneko oso zabala da, eta urtetik urtera handituz doa.

DATUAK

668

EURO FAMILIAKO

Hego Euskal Herrian eta Espainian, 668 euro gastatuko du familia bakoitzak; iaz 655.

%56

EROSLEEN AUKERA

Gehien, lurrinak eta kosmetikoak oparituko dira aurten: erosleen %56ek aukeratuko dituzte.

Janaria, iaz bezala

Bigarren gastu handiena jatekoetan egiten dute familiek: aurrekontuaren %27, hain zuzen. Komertzioak dagoeneko hasi dira eskaerak jasotzen, baina oraindik "oso goiz" dela diote.

Hala ere, ez hain goiz aurtengo joerak nondik norakoak izango diren ez aurreikusteko. Jose Mari Salegi harakinak batez ere santamasetarako jaso ditu orain arteko eskaerak, eta horiek eta gero etorriko dira Gabonetakoak bere komertziora.

"Iazko bidetik joango dela dirudi", esaten du berak. Eta iaz, hemendik joan zen: bildotsa, txuletak, entrekota, azpizuna, "xerra onak ere bai, eta antxume eta txerrikumeren bat ere saldu zen. Baita baserriko oilasko dezente ere", esaten digu. Txarkuterian, solomo iberikoa, beso iberikoa eta "pate onak" saltzea espero du Salegik, iaz bezala. Ondorioz: "Gabonetan ondo saltzen dugu eta poliki lan egiten dugu. Egia da orain bospasei urtetik hona kantitate txikiagoa erosten duela jendeak, baina Gabonetan ahalegintxoa egiten dute eta genero ona erosten dute", esaten du harakinak.

Arraina eta itsaskia ere erosiko ditugu aurten. Itsaskia ez hainbeste, dena dela; hori diosku, behintzat, Elgetako Amagoia Irazabal arrain-saltzaileak. "Legatza asko erosten didate; txipiroiak ere bai, krabarroka (kabratxoa), txirlak, bakailaoa saltsan egiteko... horiek ere bai", esaten digu. Gabonetarako, aurten "iaz bezala" saltzea espero du. "Familiek zertxobait gehiago gastatzen dute Gabonetan, baina bere neurrian". Hori bai, "arraina fresko jateko erosten dute; ez dute izozten".

ESANAK

"Aparteko gastutxoa egiten du jendeak, bai"

JORGE MARKIEGI | MERKATARIA

"Askok lagun ikusezinarena egiten dute"

ARANTZA ARANTZABAL | MERKATARIA

XABIER ARKAUZ
AURRE-ERRETIRATUA

"Betiko antzera gastatuko dut, iaz ere hala egin nuen. Etxean opariak egiteko ohitura dago, baina ni oso motza naiz horretan".

CONSUELO CORTÉS
ETXEKOANDREA

"Asko gastatuko dut, eta ahalik eta gehien ospatuko dugu seme-alabekin eta ilobarekin. Ilobari izugarrizko opariak egiten dizkiot".

AINHOA ASTIGARRAGA
ETXEKOANDREA

"Etxean, ahalegintzen gara asko ez gastatzen, baina ohi baino gehiago gastatzen da azkenean. Oparietan eta jatekoetan gastatuko dugu".

RAMON LUMBRERAS
ERRETIRATUA

"Ahal dudan gehiena gastatuko dut, eta askotxo izango da. Izan ere, zaletasun asko ditut eta bilduma asko egiten ditut".

Gabonetan bereziki gogoan izateko

BURUAREKIN EROSI
Bai Gabonetan bai urte osoan, oso garrantzitsua da buruarekin erostea: marka desberdinetako produktuak aztertu eta alderatu, etiketak irakurri...

ORDAINTZEKO MODUA
Kontuz kreditu txartelarekin: zorra atzeratu egiten da, baina gero, zor guztiak pilatuta jaso ditzakegu. Erabili neurriz.

ZERRENDA
Zerrenda egin eta hura aldean izan erostera irteterakoan. Norbere buruari ipini diogun aurrekontuaren arabera erosi.

KALITATEAREN PREZIOA
Kontsumobideko Marta Coboren esanetan, "kalitateak ez du zertan prezio handiena izan, baina normalean kalitatea ordaindu egiten da". Bilatu oreka: batzuetan, produktu garestiena erostea izango da aukera adimentsuena.

TIKETA
Beti eskatu erosketa-tiketa eta, kasua bada, bermea, gero aldatzeko edo erreklamatzeko.

ALTERNATIBAK
Beti daude alternatiba merkeagoak: norberak egindako opariak, adibidez.

Osasun Sailaren helburua gainditu du Debagoienak

Nagusien %72k hartu dute gripearen aurkako txertoa

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoienak gainditu egin ditu gripearen aurkako txertaketa kanpainarako ipinitako helburuak. Osasun Sailaren helburua zen 65 urtetik gorakoetatik gutxienez %65ek hartzea txertoa, eta Debagoieneko batez bestekoa horren goitik geratu da: %72,5, Osasun arduradunek emandako datuen arabera. Kanpainaren azken asteko datuen faltan, portzentajea ez da askorik aldatuko, zerbait aldatzen bada; izan ere, azken asterako, jende gehienak dagoeneko hartu du txertoa.

Osasun Sailaren helburua ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoa Mendebaldeko osasun eskualdeko batez bestekoak ere gainditu ditu Debagoienak. Bi kasuetan, 65 urtetik gorakoen %62k hartu dute gripearen aurkako txertoa.

Gizonezko bat, txertoa hartzen. | ARANTZAZU EZKIBEL

Arrasate eta Eskoriatza

Antzuolako datuak dira bereziki onak: han, 65 urtetik gorakoen %98 joan dira txertoa hartzera (377 lagun). Herririk herri, hauek dira datuak: Arrasaten, %63,85 (3.211); Bergaran, %65,9 (2.110); Oñatin, %74,2 (1.763); Aretxabaletan, %67,14 (854); Eskoriatzan, %58,50 (472); Elgetan, %82 (217); eta Aramaion, %70,6 (187). Hortaz, Eskoriatzak ez beste guztiek gainditu dute EAEko batez bestekoa, baina Arrasatek ere ez du bete Gasteizek ipinitako helburua.

DATUA

%98

PAZIENTE

Antzuolan, nagusien %98k hartu dute txertoa.

Gipuzkoa Mendebaldeko eskualdeko arduradun Arantza Urruzolaren esanetan, eskualde horretako datuak "ez dira batere onak: %67 bakunatzea lortzen genuen, baina iaz asko txikitu zen kopurua eta juxtu-jutxu ailegatu ginen %61era". Bere iritziz, jendeak beldurra galdu dio gripeari: "Oraindik ez da negua; gainera, azken urteotan ez da griperik egon".

Debagoienean, betiko antzera joan da kanpaina. Oñatiko erizain buru Isabel Arenatzaren esanetan, adibidez, herri hori "beti geratzen da batez bestekoaren gainetik", eta aurten ere hala izan da. Aretxabaletako osasun etxeko zuzendari Clemente Domingok esaten duenez, Aretxabaletan eta Eskoriatzan "iaz, hobeto" bukatu zen kanpaina. "Aurten, eguraldiak ez du lagundu", esan digu.

Gaixo kroniko gutxi

Gripearen aurkako txerto kanpaina, batik bat, 65 urtetik gorakoei dago zuzenduta, baina baita gaixotasun kronikoak dituzten adin guztietako pazienteei ere. Horiez gain, osasun langileek ere hartzen dute, eta etxean nagusiei laguntzen dieten langileei ere hartzea gomendatzen diete. Hala ere, Arantza Urruzolaren esanetan, "txertoa hartzen duten gaixo kroniko gehienak 65 urtetik gorakoak izaten dira". Adin horretatik beherakoen multzoan, datuak apalagoak dira, eta populazioaren erdiak baino gutxiagok hartu du txertoa.

Herriz herri, honela joan da kanpaina diabetesa duten 65 urtetik azpikoen artean: Arrasaten, %42k hartu dute txertoa; Bergaran, %45ek; Oñatin, %51,5ek; Aretxabaletan, %40k; Eskoriatzan, %43,52k; Antzuolan, %72k; Elgetan, %29,5ek; eta Aramaion, %46k. Aldiz, BGBK (buxadurazko arnas eritasun kroniko; gaztelaniaz, EPOC) edo bronkitis eta antzeko gaitz kronikoak dituztenen 65 urte baino gazteagoen artean, hauek izan dira datuak: Arrasaten, %32 joan dira txertoa hartzera; Bergaran, %34; Oñatin, %46,5; Aretxabaletan, %48; Eskoriatzan, %22; Antzuolan, %50; Elgetan, %40; eta Aramaion, %33,5.

Asiako gripearen arabera

Osasun arduradunek oraindik ez dakite aurtengo gripearen birusa zelakoa izango den; izan ere, oraindik ez da kasurik antzeman. Clemente Domingok azaltzen digunez, Asiako gripearen arabera egiten dira txertoak, hori baita gero mendebaldera etorri daitekeen gripea. Urtetik urtera aldatu egiten da birusa. Txertoak ez du %100ean babesten, baina bai neurri handi baten.

Euskadiko BPGren %3,1 Mondragonek sortu zuen

L.K. | ARRASATE

Eustatek 2010eko EAEko ekonomiarako emandako datuak erreferentziatzat hartuta, Mondragon Korporazioak EAEn sortutako Barne Produktu Gordin osoari emandako balio erantsia %3,1 izan zen; %7,4, industri arloari begiratuz gero. Datu horiek adierazten dute 2010ean EAEn sortutako aberastasunaren 32 eurotik 1 euro Mondragonek egindako jardueretatik etorri zela, eta proportzio hori 14tik 1ekoa da konparazioa industriara mugatzen bada.

Langile gastuak

Korporazioak jakinarazi duenez, Mondragonek EAEn eta Nafarroan sortutako 2.038 milioi euroko Balio Erantsitik 1.301 milioi Langile Gastuetara bideratu ziren, kooperatibetako eta enpresa elkartuetako bazkideen eta langileen etxeko ekonomietara zuzenduta. "Horrek ondorio mesedegarriak ekarri zituen bi erkidegootako kontsumoaren eta aurrezkiaren gainean", baloratzen du Mondragonek.

Industrian, %11,8

2009ko ekitaldiari buruz Eustatek egindako azken Industria Inkestaren azken edizioari jarraituz, Korporazioko industri arloak urte horretan inbertitutako 208 milioi euroak Euskal Autonomia Erkidegoan egindako inbertsio industrial guztien %11,8 izan ziren.

VK COMUNICACIÓN

Basque Culinary, hegaztien arloan

Jose Mari Aizega Basque Culinary Centerreko zuzendariak eta Gorrotxategi Hegaztitegiko Luis Gorrotxategi gerenteak hitzarmena egin dute gastronomiaren eta hegazti-sektorearen artean ikerkuntzarako eta prestakuntzarako sinergiak sortzeko. Hitzarmenak bost urte iraungo du, eta tarte horretan hainbat lankidetza-proiektu egingo dituzte Gorrotxategik eta Basque Culinary Center Fundazioak.

Energian etxean gastatzen den diruaren erdia berogailurako da

Etxean eroso egoteko, nahikoa da 20 gradu izatea; gradu bakoitzeko, 0,7 euro gastatzen ditugu

L.K. | ARRASATE

Energian urtero, batez beste, 650 euro gastatzen ditu etxebizitza bakoitzak, eta horren %46 bakar-bakarrik berogailu sisteman gastatzen da. Horrela esan zuten IFEMAn otsailean egingo den Klimatizazioaren Azokako antolatzaileek. Beroa galtzeak aurrekontu hori dezente handitu dezakeenez, oinarrizko gomendio batzuk jarraitzea komeni da.

Eroso egoteko nahikoa dira 20 gradu, eta 3 eta 5 gradu artean gutxiago logelan, IDAE Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Erakundeak dioenez.

Gomendio errazak

Legeak hala agindu ez arren, komeni da galdara urtero ikuskatzea, horretarako zertifikatuta dagoen enpresa baten bidez. Garra urdin kolorekoa izan behar da.

Berogailu guztiak purgatu egin behar dira; hau da, airea atera. Oso erraza da, eta ezinbestekoa sistemak modu homogeneoan berotu dezan.

Bestalde, izozteko arriskua duten hodiak zeharo drainatu behar dira. Ur-hari batekin utz daitezke txorrotak, ura hodietan gelditu eta izoztu ez dadin.

Euria etxean sar ez dadin, aurreikusi egin behar da benetako eguraldi zakarra. Hura ailegatu aurretik, sabaia eta paretak ondo dauden ikustea komeni da.

Isolatu

Beroaren %80k ateetatik eta leihoetatik egiten du ihes. Panel termikoak eta juntura isolatzaileak ipintzeak asko laguntzen du hori txikitzen. Gainera, berogailuak leihoen oinetan ipintzeak aire bero gortina bat sortzen du.

Aurreztea, bost pausotan

URDINA Galdarako garra beti urdina izan behar da. Hala ez bada, zerbait txarto dagoen seinalea da.

HUSTU Etxeko berogailu guztiei airea atera behar zaie noizean behin. Badaude purgatzaile automatikoak ere.

HARI BAT Izozteko arriskua duten hodietatik utz daiteke ur-haritxo bat etengabe pasatzen. Horrela, zailagoa izango da izotza sortzea.

PREBENITU Negu gorria ailegatu aurretik, ziurtatu sabaiak eta paretak ondo daudela, itogin edo pitzadura gabe.

GORTINA Berogailua leiho-oinean ipintzeak hotza sartzea zailtzen du.

Gizarte eta politika gaiak aztertuko dituzte gazte asanbladek asteburuan

Bailarako hirugarren jardunaldiak egingo dituzte gaur hasi eta domekara arte

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Oñati eta Arrasateko gazte asanbladetako kideek Deba Bailarako III. Jardunaldiak antolatu dituzte. Gaur hasi eta domekara bitartean egingo dira jardunaldiok, Arrasateko gaztetxean, eta, batik bat, gizarte eta politika gaiak jorratuko dituzte, mahai-inguru, hitzaldi eta ikus-entzunezkoen bitartez.

Antolatzaileen arabera, jardunaldion helburua bikoitza da: "Alde batetik, bailaran gai sozial eta politikoen inguruan martxan dabiltzan talde eta pertsonen elkargune izan nahiko luke. Bestetik, gai horien gaineko formazio-gune ere izan nahi du".

Asteburu osoko jardunaldiak

Jardunaldiak gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte izango dira eta antolatzaileek interesa duten herritar guztiak gonbidatzen dituzte parte hartzera. Gainera, otorduak eta lo bertan egiteko aukera ere badagoela aurreratu dute.

Jorratuko dituzten gaiei dagokienez –ikus ondoko taula–, gaur, egubakoitza, Abiadura Handiko Trenaren eta torturaren gainekoak landuko dituzte.

Malbe artzaina. | GOIENA

Bihar, zapatua, auto-formazio saio batekin hasiko dute goiza. Hain justu ere, FCC enpresaren gainean jardungo dute. Ondoren, desobedientziaz jardungo du Enrike Lopez EHUtik kaleratutako irakasleak. Bazkalondoren gaztetxeez jardungo dute eta domekan, berriz, Malbe baserrira irteera egingo dute, eta, bidean, lur komunen galeraren aurka altxatu zen Malbe artzainaren istorioak kontatuko dituzte.

EGITARAUA EGUNEZ EGUN

ABENDUAK 9

18:00 *AHTaren aurkako borroka: iragana eta etorkizuna* delako hitzaldia egingo du Mikel Alvarezek.

22:00 *Tortura Euskal Herrian,* Torturaren Aurkako Taldearen dokumentala.

ABENDUAK 10

10:00 Auto-formazio saioa: *Zergatik FCC mankomunitatetik kanpora?*

11:00 *Gaur egun desobedientzia* delako hitzaldia Enrique Lopezen eskutik.

16:30 Mahaingurua: *Gaztetxeak aurrera!*

19:00 *Gazteen borrokak eta borrokatzeko moduak* delako eztabaida.

22:00 Kontzertua. Ez! eta Garraxi taldeak.

ABENDUAK 11

11:00 Irteera Malbe baserrira.

17:00 *Zeinek erre nahi ditu hondakinak?* izeneko hitzaldia egingo du Mikel Peruarenak.

Nekazaritza familiarrari buruzko erakusketa Bergaran 12tik 19ra

M.B. | ARRASATE

Nekazaritza familiarraren gaineko erakusketa zabalduko dute astelehenean Bergaran. Nekazaritza Familiarraren Nazioarteko Urtearen kanpainaren barruan egingo dute erakusketa hori, Foro Rural Mundial, Mundukide eta Fisc erakundeek bultzatuta.

Erakusketa panelez osatuta dago, eta, modu didaktiko eta dibulgatzailean, elikadura ziur eta subiranoaren, elikadura eskubidearen, emakumeen egoeraren eta nekazaritza familiarraren garapenerako estrategiak planteatzen dira. Erakusketa hilaren 12tik 19ra egongo da ikusgai, osoko bilkuren aretoan, astegunetan 18:00etatik 20:30era eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era.

Guardiako adierazpenak

Horrekin batera, Guardian 2010ean egindako adierazpenei atxikimendua emateko aukera ere egongo da. Adierazpen horiek dira Landa Eremuko Emakumeen Batzordeak 2010eko urriaren 15ean, landa eremuko emakumeen nazioarteko egunean, Guardian egindako lan saioan jasotako hausnarketen inguruko agiriak. Eta herritarrek agiriok sinatzeko aukera izango dute.

Harreman klinikoen barruan sortzen diren kezka etikoen gaineko hitzaldia abenduaren 14an

M.B. | ARRASATE

Historia de la ética aplicada a la relación clínica delako hitzaldia antolatu du Goienagusi elkarteak abenduaren 14rako, eguaztena, 18:00etan, Aretxabaletako Arkupe elkartean.

Mabel Marijuan medikuak egingo du hitzaldia eta bioetika klinikoaz jardungo du. Bioetika klinikoak eztabaida sakonak eragin ditu azken hamarkadetan munduan barrena, gaur egun ditugun arazo etikoei irtenbide zentzuzkoak emateko. Kezka bioetiko horiek sarri azaltzen dira osasun-etxe zein profesionalen eta gaixoen eta haien familien harremanen barruan, eta gizakiondako oinarrizkoak diren gaietan eragiten dute: bizitza eta heriotza, hain justu ere.

Israelen egindako jostailuei boikot egiteko eskatu dute

Askapenak eta Euskal Herria-Palestina sareak Israeli boikot egiteko *Made in Israel jostailurik ez!* delako kanpaina hasi dute Gabonen atarian. Azaltzen dutenez, Imaginarium, Toys 'R' Us eta Afede dendetan, Israelen egindako jostailuak komertzializatzen dituzte –729 kodea dute–. Boikot kanpainaren helburua da "jostailuak ez izatea palestindarrak zapaltzeko erreminta" eta dei egiten diete herritarrei parte har dezaten.

Gizonezko bat atxilotu dute Arrasaten, genero indarkeria egotzita

Emazte ohiarengandik urruntze-agindua ez betetzeagatik 41 urteko gizonezkoa atxilotu zuten astelehenean, 16:00 aldera, Arrasaten. Senar ohia etxeko txirrina joka zebilela ikusita, ertzainei deitu zien emakumeak. Agenteek urruntze-agindua zeukala egiaztatu eta gizonak joateko asmorik ez zuela ikusita, atxilotu egin zuten, Barne Sailetik azaldu dutenez. Hain zuzen, ustezko genero biolentzia eta agenteen kontrako desobedientzia leporatu dizkiote.

Agurne Juldain. | MONIKA BELASTEGI

Agurne Juldain | Nubi elkarteko kidea

"Eskerrik asko, Nubi eta Iesbaari lagundu dieten guztiei"

Sahararren eskubideen alde jardun duten bi elkarteek bertan behera laga dute zeregina

A.A/M.B. | ARRASATE

Zein da elkarteak bertan behera geratzeko arrazoia?

Nubi eta Iesbaa sortu zirenean, pertsona talde bat zegoen elkarte bakoitzaren atzetik, baina, urteek aurrera egin ahala, batean zein bestean pertsona bakarra geratu gara. Hori horrela, azken denboran biok elkarrekin eraman izan ditugu proiektuak aurrera; bi elkarte beharrean, bat izan garela esan daiteke. Momentu puntualetarako izan dugu laguntza, baina horixe, une puntualetarako eta elkartea kudeatzeko beti eskatzen ibili beharra izan dugu: dirua eskatzen, jendeari laguntza eskatzen… eta nekatu egiten zara. Azken batean, ikusten duzu une puntual baten laguntzeko prest dagoena ez dela kateatzen gu bezala. Bestalde, egoera pertsonalak ere ez digu lagatzen hainbeste denbora libre elkarteak modu egokian kudeatzeko. Baina argi laga nahi duguna da Iesbaako Olaia Sagredok eta biok herri sahararraren alde lanean jarraituko dugula, baina beste era baten; beste konpromiso batekin. Horrekin guztiarekin, oraingoz itxi egingo ditugu elkarteetako ateak. Baina, esan bezala, guk segitu egingo dugu herri sahararraren gatazka salatzen, eta etorkizunean, bada, elkartearen beharrik ez egotea litzateke hoberena, herri sahararrak bere eskubideak lortu dituelako, eta askatasuna ere bai.

Atzera begira jarriz gero, nola ikusten duzu elkarteen ibilbidea?

Nubi sortu zen 2003ko udan, umeak Arrasatera lehen aldiz etorri zirenean, familia batzuen bitartez. Ni begirale egon nintzen orduan. Eta hortik abiatuta, sei bat lagunek elkartea sortu genuen. Iesbaari dagokionez, antzera sortu zuten. Egindako ekimenen artean, *Elkartasun karabanan* eta *Oporrak bakean* programan biek hartu izan dugu parte. Horrez gain, Nubik gerra eta minen biktimen zentroan kolaboratu izan du, eta aurrerantzean nik segitu egingo dut; eta Iesbaak preso eta desagertuen familien elkartean kolaboratu izan du, eta, elkarte moduan segituko ez duen arren, Olaia Sagredok segitu egingo du. Ikusiko dugu nola kolaboratu; izan ere, elkarte edo erakunde bat atzean izan gabe, zaila da, baina aztertuko dugu ze laguntza mota bidera dezakegun eta zer eskain dezakegun.

Eta aurrerantzean zer gertatuko da udan etortzen diren haurrekin?

Elkarteak sortu aurretik umeak etortzen ziren eta etorkizunean, pentsatzen dugu, orduan bezala, herritarrek Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dutela eta han emango dietela irtenbidea. Guk espero dugu udalek herri sahararraren alde lanean segitzea. Ez dakigu nola planteatuko duten, baina uda arte denbora badago.

Janari bilketa ere Gabonen bueltan egin izan duzue. Zertan da?

Ez dakigu zer gertatuko den, oraindik ez dago-eta oso argi Fronte Polisarioak nola bideratuko duen, udalek parte hartuko duten...

Eskerrak eman nahi dituzu...

Bai, urte hauetan lagundu diguten guztiei, bi segundo eskaini badizkiote ere herri sahararrari, eta gure lanean sinisteagatik.

"Olaia Sagredok eta biok gure aldetik segituko dugu lanean"

ZABALIK

ANDONI URZELAI
http://goiena.net/iritzia/

Publikotasunaren defentsa

Ipar Amerikan zehar ari naiz bidaiatzen azken hiru hilabeteotan, eta hara, bizipen pertsonaletik haratago, zenbait gauza ere atera ditut dagoeneko garbian.

1-Interes pribatuek deuseztatu nahi duten babes-sozial eredu europarra defenditu egin behar dugula nola edo hala. Bai, horretantxe ari direla iruditzen zait *Los mercados* definizioaren atzean ezkutatutako putre horiek guztiak; banketxeak, aseguru etxeak, eta abar: estatuen babes soziala murriztu nahian beraien produktuak (pentsio eta osasun aseguru pribatuak) saltzeko.

"Ez ditzagun gringoen akats berberak egin; denboraz gaude"

Ipar Amerika da eredu horren adibiderik garratzena, eta, aizue, nik ez dut nahi gurean horrelakorik, behintzat. Izan ere, harrigarria da hemen dagoen etxegabe eta gaixo kopurua kalean. Milaka eta milaka pertsona miseria gorrian, inolako estatu-babesik gabe. Negargarria da. Daukanarentzat diseinatutako mundua da hemengo hau. Brutala. Dirurik ez daukanak ez du eskola, medikuntza edo erretirorik. Hutsaren hurrengoa da. Azken urteotan asko jaitsi da Europan ere babes-soziala, baina oraindik orain gelditzen zaigu partzelatxo bat. Defendatu dezagun, bada, boteretsuenen hatzaparretatik.

2-Bizimodua zentro komertzial handien inguruan eratzeak auzo eta herrien desertizazioa dakar. Hemen orain ari dira auzo bizitza errekuperatu nahian (erabat hilak eta hutsik baitaude), baina behin galduta, zaila da errekuperatzea. Ez ditzagun gringoen akats berberak egin. Denboraz gaude. Zaindu eta mimatu herria eta auzoa: herriko denda, bertako produktu eta auzokideen negozioak. Hemen dioten moduan: "Buy local, think local".

Honetan guzti honetan pentsatzen jarrita, zera okurritzen zait: ez nau Kubako eredua ezagutzeak ezkertiarrago egin, AEBetakoa bertatik bertara ikusteak baizik.

USTEAK USTE

ASIER ALKORTA | aalkorta@goiena.com

'TT' izan nahi dut?

Trending topic. Gero eta gehiago entzuten diren bi hitz dira; askok oraindik jakin ere ez dakite zer esan nahi duten. Nire amak ez, behintzat. Bada, Twitter erabiltzaileek ondo -ondo ezagutzen dute horren esanahia: momentuko gaia. Twitter sare sozialean momentu jakin baten komentatuena den izenari edo gaiari lotzen zaio. Egun hauetan lagun batek ondokoa esan dit: "Momentu honetan TT ez bazara, ez zara inor". Eta aspaldian TT izan direnak zeintzuk izan diren begira ibili ondoren (Sara Carbonero, Miss Gipuzkoa...), TT izan gabe ere pozik bizi naizela diot. Onerako zein txarrerako, askotan, mahai gaineko eztabaidagai izan gabe anonimoago sentitzen da bat.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/

GUTUNAK

Agurra

Agurne Juldain eta Olaia Sagredo
(Nubi eta Iesbaa elkarteen izenean)
Antzuola, Arrasate, Eskoriatza, Oñati

Nubi eta Iesbaa elkarteek –Herri Sahararraren Lagunen Elkartea– eskertu egin nahi dute urtetan jasotako laguntza, eta jakinarazi nahi dute euren lana eten egingo dutela giza baliabide faltagatik.

Ni neu ere haserre nago

Mikel Perez Gartzia
Arrasate

Hasteko, nabarmendu beharra dago erretzaileen jarrera hilabete hauetan, tabakoaren kontrako legea ezarri zenetik, baina orain, berriz, ezin daiteke horrelakorik esan.

Arrasateko tabernetan erre egiten da, asko, udatik hona, eta inork ez du ezer egiten egoera hori amaitzeko.

Onartezina da erretzen ez dugunok ke hori guztia irentsi behar izatea; legeak babestuta gauden neurrian, gainera.

Eta non daude agintariak? Zer egiten dute horrelakorik ez gertatzeko?

Eskerrik asko

Adolfo eta Pilar Fernandez
(Fernandez Arkauz sendiaren izenean)
Arrasate

Hiru urteko gaixotasun gogorra pasatu ondoren, gure aita eta senarra, Pedro Fernandez, azaroaren 30ean hil zen.

Momentu honetan bere galera eta sentitzen dugun mina jasanezina izan arren, egunerokotasunean jaso dugun laguntasuna hor dago, eta egongo da behar duenarentzat.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, ordurik gabe, beti irribarretsu, euren eskuak luzatuz... gurekin egon diren pertsona guztiei: etxeko ospitalizazioa, Arrasateko ospitaleko lehenengo solairuko erizainak, auxiliarrak, Iñaki Peña doktorea, Pilar Oceja doktorea, Español botika, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, Saiatu (Debagoieneko Zaintza Aringarrien Elkartea) ezagutzeko eta gozatzeko aukera eman digulako.

Saiatu osatzen dutenek ez dute ordutegirik, jaiegunik... Prest daude edozein unetan gaixoari eta familiari laguntza integrala emateko.

Iñaki Peña, Naihomi, Jesus Millas eta bertan zaudeten guztioi, eskerrik asko; betiko gure bihotzetan.

Gero arte, aitta.

M. Altunan eskubideak borrokatzen!

Izaro Arizabaleta
(Bergarako Ikasle Abertzaleak)
Bergara

Zerbait aldatu nahi bada, elkartu eta hau borrokatu behar dela argi ikusi da Bergarako Miguel Altuna institutuko ikasleon artean.

Greba eskubidea badugula erakutsi behar dugu, eta hau defendatu. Gure greba orduak ezin daitezkeela "falta" soil baten neurrian konparatu, eta institutu honetan greba bati jartzen zaion "pira kolektibo" izaera salatu behar dugu.

Institutuko delegatu guztiek eta ikasleon gehiengoak eskatzen dugunari behingoz kasu egin eta gai honi behar zaion seriotasuna emanik, hau mahai gainean jartzea eskatzen dugu berriro ere, ikasleon hitza errespetatuz!

Honen bitartez, borroka horri gure babesa eskaini nahi diogularik. Ikasle borrokaz eskubideak lortu!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Krisiak krisi, osasuna zaintzea beti garrantzitsu

NereaM Dance & Fitness gimnasioan kirola egiteko aukera zabal eta ekonomikoa eskaintzen dute | IRATI GOITIA

Osasuna zaintzeko eta giharrak lantzeko aukera bikaina eskaintzen dute Arrasaten dagoen NereaM Dance & Fitness gimnasioan.

Goizeder Caballero eta Nerea Mata, gimnasioko irakasleak. | IRATI GOITIA

MATRIKULA ERDI PREZIOAN

Gainera, abenduan eskaintza berezia eskainiko dute gimnasioan: hilabete horretan izena emanez gero, %50eko deskontua matrikulan, eta, bi pertsona batera joanez gero, matrikula doan bi lagunek.

Nerea Mata gimnasioko arduradunak adierazi digu Gabonak gertu ditugula kontuan izanda geure buruari opari bat egiteko aukera ona dela eskaintza hori: "Geure buruari osasuna oparitzeko aukera egokia da".

Matak gaineratzen du egun bizi dugun krisi garaian horrelako eskaintzak bezeroak erakartzeko beharrezkoak direla, baina, aldi berean, hauxe dio: "Osasuna zaintzea ezinbestekoa da. Egoera ekonomiko honetan, lehentasunak ezarri behar ditugu, eta nik uste dut horietako bat izan behar dela gure osasuna".

ESKAINTZA ZABALA

Bada, gorputza nola zaindu aukeratzeko orduan, aukera zabala eskaintzen dute. Alde batetik, fitness eskolak ematen dituzte: body pump, body combat, body balance, aerodance, gap, batuka, hirugarren adinekoendako gimnasia, sasoian egoteko gimnasia eta step.

Beste alde batetik, askotariko dantza eskolak ere eskaintzen dituzte: salsa eskolak hasiberriendako; eta aurreratuendako, latin jazza, dantza latindarrak, sabel dantza eta tangoa.

Ordutegiari dagokionez ere aukera zabala da: eskolak goizeko lehen orduan hasten dira, 07:30ean. Eta arratsaldean, 13:30etan hasi eta 23:00ak arte egoten da irekita gimnasioa. Matak hau adierazi digu: "Eskaintzen dugun ordutegiarekin erraza da lana eta kirola batzea".

IRAKASLE IKASIAK

Eskolak ematen dituzten irakasleak prestakuntza handikoak direla adierazi digu Matak: "Eskolak ematen dituzten irakasleak profesionalak dira; hau da, arlo honetan lanean diharduen jendea da. Esate baterako, salsa ikastaroak ematen dituen irakaslea Zarauztik etortzen da espresuki eskolak ematera, dantzari profesionala da eta bizitza osoa darama dantza munduan. Sabel dantzako irakaslea ere Euskal Autonomia Erkidegoko hoberenetarikoa da, Bilbotik etortzen da ikastaroak ematera. Gainerakook ere urte asko daramatzagu mundu honetan, esperientzia handia dugun jendea gara".

UMEENDAKO ESKAINTZA

Adin guztietako jendeari zuzendutako ariketak eskaintzen dituzte: "Gure bezero zaharrenak 82 urte ditu, eta 3 urteko umeak ere baditugu", dio Matak.

Horrenbestez, umeendako dantza eta karate eskolak ere ematen dituzte gimnasioan. "Irakasleak Gorputz Heziketako ikasketak ditu eginda", azpimarratzen du.

3 eta 5 urte bitarteko umeekin psikomotrizitatea lantzen dute. Zahartxoagoekin, 5 eta 11 urte bitartekoekin, mota guztietako dantzak egiten dituzte: salsatik hasi eta aerobikeraino. "Denetarik egiten dugu; adibidez, modan dauden kantuekin aritzen gara dantzan", esaten du Matak.

APRENDICES KALEAN DAGO

Ospitale ondoan dago NereaM Dance & Fitness gimnasioa, Aprendices kaleko 4. zenbakian.

Izena emateko hara joan bestetik ez dago. Gainera, interesa dutenek nahi duten eskola batera joan eta doan probatzeko aukera dute. Horren ondoren, gustatuz gero, izena eman dezakete.

Iñaki Urruzola | 'Debagoieneko tobera' antzezlaneko kideetako bat

"Arrasateko herria epaituko du Bergarakoak Inuzente Egunean, Amaia Udal Antzokian"

- Bagara elkarteak bultzatuta egingo dute Debagoieneko tobera-mustra
- "Kritika egingo diogu Arrasateri, zentzu positiboan, eraikitzailean, hobetzeko asmoarekin"

ENEKO AZKARATE | ESKORIATZA

Bagarako Kultura Sorgunekoek buru-belarri dihardute *Debagoieneko tobera* prestatzen. Abenduaren 28an, Inuzente Egunarekin, estreinatuko dute, Amaia antzokian, 19:00etan. Antzezpen satiriko, ironiko, umoretsua izan nahi du. Bergarako herriak Arrasatekoa epaituko du. Toberak tradizio handia du Iparraldean eta Lasarten ere urtero egiten dute, azken mendean. Debagoienera egokitzea erabaki du Bagarak. Iñaki Urruzolak idatzi du libretoa eta hark eman dizkigu antzezlanaren zehaztasunak.

Zelan hasi zineten *Debagoieneko tobera*-rekin?

Tolosarra naiz, baina luzaroan Lasarten bizi izandakoa, eta Lasarten tobera egiteko tradizioari eutsi egin zaio urteetan. Joan den mende hasieran egiten zen eta urtero-urtero egiten da, gerra ostetik. Iparraldean dauka jatorria. Hala, Bagarako Kultura Sorgunekoei planteatu nien, gustatu egin zitzaien ideia eta aurrera egin genuen. Lasarten, *Santana parodia* deitzen diogu tobera-mustrari. Herri antzerki honek badauzka beste deitura batzuk Iparraldean: libertimendua, astolasterrak, karrusak…

Zer da, funtsean?

Epaiketa bat. Epaile bat, fiskal bat eta abokatu defendatzaile bat daude. Idazkaria, prokuradoreak, estamentu ezberdinak, eta baita herri pertsonaiak ere. Eta auzi bat. Epaitzen den kausa bat. Gero, desfile bat egiten da. Badago dei bat, kalean barrena egiten dena; hau da, anuntziatu egiten da epaiketa. Ikusmira bat sortzen da eta, teorian, giza populuak badauka jakingura han juzgatuko denaz.

Zeintzuk dira ezaugarriak?

Herri antzezpena da eta ezaugarri nagusiak dira kritika soziala, ironia, umore klabean eta kariñoz egindakoak, modu eraikitzailean, baina esan beharrekoak esanda. Hizkuntza ezberdinak erabiltzen dira, baina %95ean euskaraz egingo da, eta bertako euskalkiak errespetatuta.

Bat dator erabat Bagararen helburuekin?

Bai, uste dut baietz. Bailara honek izan du garapen handia, baina belaunaldi aldaketa dator eta horrek badauka berrikuspena egin beharra. Kritika egin beharra. Betiere, zentzu positiboan, eraikitzailean, hobetzeko asmoarekin, greziar erara.

Bagararen kultura sorkuntzaren barrutik atera da?

Bai. Bagarak hamar bat lan lerro baditu, prozesu esperimental eta ireki moduan planteatuta daudenak. Diagnostikoa egin da, lanketa txukuna egin da… Gure lantaldean topo egin genuen elkar ezagutzen ez dugun kideok. Apurka-apurka mamitzen joan zen dena eta aurten antzeztea erabaki genuen. Iraitz Agirre, Iker Barandiaran, Iban Arantzabal, Eneko Barberena eta ni neu izan ginen ernamuina. Eta, gero, forma eman diogu guztiari eta jendea batzen joan da egitasmora.

Tobera, beste toki batzuetan, hemen edo Bizkai aldean-edo egin da?

Uste dut Zalduondon antzeko zerbait egiten dela Inauterietan, *Markitos*-edo izenekoa, baina, urtero-urtero, modu sistematizatuan, ez dut uste. Lasarten bai, han 1.000 bat lagun batzen gara plazan.

Gaia, jolasteko aukerak, zela aurkitu zenituzten?

Bagarak kooperatibismoari egiten dio kritika eraikitzailea. Bestalde, Arrasatek badauka izen bat, esangura bat, bada erreferentzia hainbat alorretan. Hortaz, kooperatibismoaz eta Arrasatez jardutea erabaki genuen.

Zer epaitzen da, hortaz?

Arrasate, herria bera. Arrasatek, sinbolikoki, daukan esangura, zentzu ezberdinetan: kooperatibak, Astore, Ternua, janzkera, punkak, euskalgintza, Caja Laboral, Lagun Aro… Modu sinbolikoan, garbigailu eta hozkailu bat epaituko dira. Amaituko dugu garbigailu bat erretzen, puskatzen.

Nork epaitzen du?

Bergarak epaitzen du Arrasateko herria. Zergatik? Bergarak ere badaukalako esangura berezia. Historikoki, herri inportantea izan da bailaran eta Euskal Herrian. XIX. mendean eta aurretik ere bai. XX. mendean tokatu zaio Arrasateri. Baina lehen garbigailuak Bergaran egin ziren; ehungintza sektoreak inportantzia handia izan du; emakumeek lantegietan jarduten zuten; Errege Seminarioa; lehen injinerutza eskola… Bergararra ez da edozein; edo, behintzat, hala uste du. Hortaz, abokatua arrasatearra da, Eneko Barberena, eta fiskala, berriz, Bergaran luzaroan bizi izandakoa, Ainhoa Agirreazaldegi. Epailea, berriz, Mikel Irizar, bi herriak ondo baino hobeto ezagutzen dituena, baina ez dena ez batekoa eta ez bestekoa.

Non dago toberaren arrakasta?

Herriak prest egon behar du bere buruaz barre egiteko, baita antzezten dutenek ere. Rola onartzeko.

Iñaki Urrozolak *Debagoieneko Tobera*-n dihardutenen izenean hitz egin digu. | GOIENA

"Toberak jatorria du Iparraldean eta Lasarten ere egiten da, tradizioa dago"

"Epaiketa bat da: epaile bat, fiskal bat eta abokatu bat daude"

"Nazioarteko begiraleak izango dira, baina herriak emango du epaia"

"Antzezlanean parte hartzen duen jendea konpromiso handikoa da"

Zenbat lagun zabiltzate?

35-40 bat, baina muinean, 15 bat.

Eskuzabala izan da jendea?

Bai, bai, bai… Oso engaiatua da, konpromiso handikoa. Inoiz antzezten ibili bakoak dira gehienak. Konpromiso sozial handikoak dira. Eta opari bat egin nahi diete euren buruari eta herritarrei, besteak beste, parodiatuz euren burua.

Ze espero duzue?

Gauza berria da hemen. Jendeak serio egingo du bere lana, baina aldarte onean egin nahi dugu. Eta ikusleari barrea sorraraztea. Ez, akaso, barre algara. Ironia, satira, txantxa, bizi-poza…

Ondo ateratzen bada, jarraipena izango du aurrerantzean?

Bai, gustura geratzen bagara, taldeak ondo pasatzen badu…, datorren urtean beste herri baten egingo dugu.

Libretoa ikus-entzuleen artean banatuko duzue?

Asmoa izango litzateke, antzeztu ondoren, sarean-edo jartzea, nahi duenak eskuratzeko.

Zer lortu nahi duzue honekin guztiarekin?

Batetik, geuk ondo pasatzea. Bestetik, jendea ohartaraztea hemen badagoela tradizio bat, herri ohitura bat; eta hori berreskuratu nahiko genuke, hori ezagutarazi.

Dokumentazio lana zelakoa izan da?

Zehatza. Gidoia ondo lantzen saiatu gara. Alde horretatik, ez da alua. Dokumentatzeko, hainbat iturri erabili ditut, baina garrantzitsuak izan dira hemen inguruko jendearekin izan ditudan solasaldiak. Eskatu nien akusazioak egitea euren buruari, euren inguru hurbilari, familiari, herriari, ondoko herriari… Materiala izan dut. Eta baita jendea, borondatea izan duena proiektuarekin aurrera egiteko.

Publikoaren aldetik parte hartzea bultzatuko duzue?

Bueno, egon daiteke zerbait, baina, esaterako, pertsonaia surrealista bat ere izango dugu. Asto bat, benetakoa, aterako dugu taula gainera. Astoa izango da protagonista bat. Eta, bestetik, egongo dira nazioarteko begiraleak; bai, geuk ere izango ditugu. Epaiketa benetan gizalegez gauzatzen dela bermatzeko. Bailaratik kanpokoak izango dira, baina harremana izan dutenak edo dutenak bailararekin. Euskal Herriko pertsona ezagunak, prestigiodunak. Esate baterako, Josu Zabala, Hertzainak taldekoa. Herri epailea ere izango da. Azkenean, herriak emango du epaia.

HERRIAK

Aramaioko txoko ederrenetariko bat da Etxaguen. Argazkian, auzoko irudi bat.

ARAMAIO

Etxaguen auzoko lanak, aurrera

- Udalbatzak finantzazio plana onartu du
- Auzoak premiazkotzat jotzen ditu egin beharreko lanak

EDU MENDIBIL | ARAMAIO

Nahi baino luzeago joan dira kontuak, eta, azkenean, joan den egubakoitzean onartu zuen Aramaioko udalbatzak Etxaguen auzoko lanetarako finantzazio plana. Egitasmoaren arabera, bide publikoak hobetzeaz gain, ondoko lanak jasotzen dira: ur edangarriaren distribuzio sarea, elektrizitate kanalizazioak, argiteria publikoa, telefonia eta gas azpiegiturak, kaleen zolaketa eta hondakin-uren eta euri uren sarea. Udalak urgentziazko tramitazioa eman dio proiektuari, eta, osoko bilkuran aztertu ondoren, urtea amaitu baino lehen egin nahi dute lanen adjudikazioa.

Etor Goikoetxea Etxaguengo auzo-alkatea eta Iban Astola haren aurrekoa izan ziren egubakoitzeko osoko bilkuran. Auzotar gehienek sinatutako idatzia eraman zuten udaletxera. Goikoetxeak hauxe esan zuen: "Sei urteren bueltan ibili gara lan hauekin gora eta behera eta urte askoan egon da auzoa inbertsio horien zain, horren premia dugu-eta. Lanok onurak besterik ez dio ekarriko auzoari eta gehienok sinatu dugu idatzia. Gurea izango da okerren dagoen auzoetariko bat eta tontoarena egitea litzateke dirulaguntzak jasotzeko aukera hau pasatzen uztea".

Dirulaguntzaren zain

Izan ere, Aramaioko Udalak urgentziazko tramitazioa emateko arrazoia dirulaguntzak izan dira. Hirigintza zinegotzi Andoni Solupek azaldu digunez, egin beharreko lanen aurrekontua 1.343.800 euro ingurukoa da eta Arabako Diputazioarengandik 983.000 euro inguruko dirulaguntza jasotzea espero dute. Horretarako baina epe batzuk bete beharra zegoen eta hortik etorri da urgentziazko tramitazioa egitea.

Urtebete inguruko lanak

Udaleko iturrien arabera, lanen adjudikazioa egin eta lanak urtarrilean edo otsailean abian jartzea da asmoa. Exekuzioa, berriz, 10-12 hilabetetan egin beharko dituztela aurreratu digute. Etor Goikoetxearen hitzetan, "hilabete horietan lanek eragindako eragozpenak jasan beharko ditugu, baina azkenean horrenbeste denboran itxarondako hobekuntzak heltzen badira, gaitz erdi". Aramaioko auzo ederrenetariko bati heldu zaio, azkenik, itxura berritzeko unea.

Oztopoak izan dituen egitasmoa

Egin beharreko hobekuntzak zirela eta, tira-bira asko izan dira Udalaren eta auzotarren artean, nagusiki proiektua gauzatu ahal izateko, Udala sei familiaren lursailen eremu zati bat desjabetu beharrean egon delako. Bada, bost familiarekin akordioa egin dute eta desjabetzeak sinatu dituzte, baina Uribarren familiarekin ez dute akordioa lortzerik izan. Orain, dirulaguntza jasotzeko epea amaitzear zela, auzoaren babesarekin prozesua azkartzea erabaki du Udalak.

Besteak beste, auzoko bideak hobetzea jasotzen da egitasmoan. | A. TXINTXURRETA

DATUA

14

BASERRIREN BABESA

Etor Goikoetxea Etxaguengo auzo-alkateak 14 baserriren babesa duen idatzia eraman zuen osoko bilkurara. Lanak egitearen alde azaltzen dira.

Ume uholdea San Nikolas eguneko boloan

Bultzadak ekiditeko, Udalak beste era batera planteatuko du 2012koa

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Abenduaren 6a egun seinalatua da Arrasaten, San Nikolas eguna. Aurten ere plastikozko poltsa hutsak horrenbeste gustatzen zaizkien goxoki eta litxarreriekin betetzeko aukera izan zuten Arrasateko haur eta gaztetxoek. Aspaldiko tradizioa da boloarena, eta garai berriek dakarten aldaketez haratago, txikienen artean ohitura hori osasuntsu mantentzen dela esan daiteke. Goizean zehar herriko kaleetan etxez etxe eta dendaz denda kantuan aritu ostean, poltsak betetzen hasi ziren neska -mutikoak.

Udalarena, bolo jendetsuena

Baina eguneko ekitaldi handia Udalak antolatzen duen boloa izaten da eta aurten ere hala izan da. Haur eta gurasoz bete zen Uarkape pilotalekua.

Herriko plazan egin behar zen hasieran, baina eguraldiagatik pilotalekuan egitea erabaki zuten Udaleko ordezkariek. Bi txanda egin ziren: 12:00etan eta 12:30ean. Horrez gain, bi multzo egin zituzten adinaren arabera: 4 urtetik beherako haurrak alde batetik eta 4 urtetik gorakoak bestetik. Udaleko zenbait zinegotzi izan ziren goxoki eta denetariko litxarreriak haurren –eta gurasoen– artean banatzen.

Hurrengoa, beste era batera

Hala ere, batzuendako gozamena izan zena sufrimendua izan zen beste batzuendako. Goxoki eta litxarreriak zoramen iturri dira haurren artean eta ondo kontrolatzen ez badira ondorio kaltegarriak eman daitezke. Bada, martitzenean hala gertatu zen; bultzadak eta indartsuenaren legea nagusi. Udal ordezkariek haurrak lasaitzeko ahalegina egin bazuten ere, ezer gutxi egiterik izan zuten. Haur bat baino gehiago negarrez ikusi genuen.

Aurtengoan azken orduan erabaki zuten boloa Uarkapen egitea. Herriko plazan baino leku gutxiago beraz, eta zenbait gurasok esandakoaren arabera, iaz baino haur gehiago. Kaosa nabaria izan zen zenbait unetan.

Hala, datorren urtean egoera hori saihesteko beste modu batera planteatuko dute boloa. Adinak gehiago bereiztu eta gurasoak bolotik kanpo uzteko asmoa erakutsi dute udal ordezkariek.

Udal ordezkariek egin zuten boloa; irudian, Josu Pereda zinegotzia eta Inazio Azkarraga-Urizar alkatea. | JOKIN BEREZIARTUA

MANEX
ARRASATE

"Batzuk goxoki gutxi hartu dituzte, baina besteok, berriz, mordoa hartu dugu. Gaurko [martitzeneko] askaria badaukat dagoeneko. Ez dut bultzada handirik eman goxoki pila hau lortzeko. Hori bai, asko makurtu behar izan naiz".

MAGALI ETA ANE
ARRASATE

"Ez ditugu goxoki asko hartu. Behean goxokien zain egon arren bultzada handiak izan dira eta ez dugu gauza handirik hartu. Asko gustatzen zaigu San Nikolas eguneko boloa, urtero etortzen gara".

IKER
BILBO

"Bilbotik etorri naiz eta asko gustatu zait San Nikolas eguneko boloa. Kantuan egin dugu lehenengo eta gero bultzada handiak egon dira goxokiak lortzeko; nahastea izan da. Hala ere, nik goxoki asko jaso ditut".

Kataide poligonoa
ARRASATE
Tel.: 943 77 10 80

Gabonetako apaingarriak: Udal Gobernua eredu berri batekin dabil; eta EAJ, haserre

J.B. | ARRASATE

Udal Gobernuak beste eredu bat landu gura du neguko solstizioaren inguruko ospakizunetarako, Gabonetako apainketa barne, herritarren parte hartzearekin. Ibai Artek "toki adierazgarrienetan" Gabonetako apaingarriak jartzeko eskatu zuen eta Udalak erantzun dio "kontsumo erantzulea eta gertuko merkataritza indartzeko proiektua" berria denez, osotasunean abian ezingo dela jarri. Horregatik, dendak apaintzea proposatu dio.

Bestalde, EAJk neurria kritikatu du: "Inorekin kontsultatu gabe eta erabakia justifikatu gabe, gehiengo absolutuaren erabilera eginez, erabaki dute".

Kinielan 15ekoa asmatuta, 127.218 euro banatu dira Arrasaten

Erdiko kaleko administrazioan zigilatu zuten kiniela. Guztira, 25 lagunek jo dute 15ekoa aste bukaerako kinielan. Ez da kiniela gaitza izan, ez da-eta ezustekorik egon. Hiru taldek bakarrik irabazi dute etxetik kanpo eta lau berdinketa izan dira. 127.218 poltsikoratu ditu apustulariak.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak
25 urteurrena
CERT ISO 9001
GARANTTA DE ALQUILER
• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.
• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.
Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Mondrako bazkideek ez dituzte presidentearen kontuak onartu

Kontuak argitzeko batzordea osatu dute bazkideek; ekainean, hauteskundeak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bero-bero egon zen batzarra. Ohi baino bazkide gehiago batu zen Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Patxi de Andres presidentea buru duen zuzendaritza taldeak batzar zaila izan zuen, hasieratik: De Andres kontuak azaltzen hasi aurretik, Fernando Urangak –aurreko zuzendaritza taldeko kidea– galdetu zuen aurkeztu behar zituzten kontuak ea zuzendaritza talde osoak berresten zituen. Bada, zuzendaritzakoek ez zuten baiezkorik eman, kontuon berri egunean bertan izan zuten-eta.

De Andresek iazko galera eta irabazien kontua, 2011-2012ko aurrekontuak eta Mondra tabernako zenbakiak aurkeztu zituen (kontu guztiak, amaierako QR kodean). Bozketa egin eta bazkideek atzera bota zuten proposamena; Mondraren historian bigarren aldia da –lehena uztaileko batzarrean izan zen– bazkideek ez dituztela kontuak onartzen. De Andresek egungo egoera 2008-2009 denboralditik datorrela iradoki gura zuela ulertu zuten bazkideek: "Ez dugu onartuko kaka aurrekoei pasatzea". Asmo hori sutsuki ukatu zuen presidenteak.

Ohi baino bazkide gehiago izan zen asteleheneko batzarrean. | JOKIN BEREZIARTUA

Batzordea osatzeko arazoak

Finean, bazkideek gardentasun falta egotzi zioten presidenteari, eta baita aurkeztutako zifrak arrazoitzen dituzten datuak ez izatea ere. Horren aurrean, zuzendaritzakoek kritiko agertu diren bazkideen asmoa zein ote zen galdetu zuten: "Zentsura mozioa aurkeztu behar al duzue?", galdetu zuen kide batek. Zentsura moziorik ez, baina kontuak aztertzeko batzorde kudeatzaile bat sortu zen. Horretarako ez zen inor boluntario aurkeztu eta horrek sutan jarri zituen zuzendaritzakoak. Azkenean, baina, lau pertsona aurkeztu ziren: Ainhoa Gallastegi, Fernando Uranga, Arturo Nogueiras eta Lorenzo Gonzalez. Batzordeak De Andresen kudeaketa aztertu ostean beste batzar bat egingo da, kontuak behin betiko onartzen diren jakiteko. Ekainean hauteskundeak egongo dira; ea orduan nork hartzen duen Mondraren gidaritza.

ARRASATE HERRI ESKOLA

Arrasate Herri Eskolako mendi irteera, giro ederrean

Arrasate Herri Eskolak eta gurasoen elkarteak antolatuta, mendi irteera egin zuten joan den domekan, hilak 4. Irun aldean ibili ziren; Aiako parkearen barruan meatzarien tuneletan ibili ostean Erlaitz tontortxora joan ziren. Adierazi dutenez, egun osoko "plan ederra" izan zen: mendian bertan bazkaldu, jolas batzuekin ederto pasatu eta buelta Arrasatera. Guztira, 82 haur eta gurasok gozatu zuten egun ederraz.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Iluna-Ekaitz	3-4
Fidel & Discipulos-Sonografos	3-11
McAwen-Betrayer	6-5
Iluntz-Dublin	2-4
Abokajarro-Aston Birra	7-4
Portaboleiros-Iriztu	2-5
Lasagabaster-Aldatz	3-3
Dribling	Atsedena

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Dribling	12	4
2	Dublin	12	5
3	Aldatz	11	5
4	Iriztu	10	5
5	Sonografos	9	5
6	Abokajarro	9	4
7	Mcawen	9	5
8	At. Betrayer	6	5
9	Fidel&Discipulos	6	4
10	Ekaitz	4	5
11	Lasagabaster	4	5
12	Iluntz	3	5
13	Aston Birra	3	5
14	Iluna	3	4
15	Portaboleiros 2.0	0	4

PARTIDUAK

ABENDUAK 10, ZAPATUA

10:30 Aldatz-Iluna / **Lasagabaster**
11:30 At. Betrayer-Lasagabaster / **Iluna**
12:30 Ekaitz-Fidel & Discipulos / **Betrayer**
16:30 Iluntz-Portaboleiros / **Antolakuntza**

ABENDUAK 11, DOMEKA

11:30 McAwen-Dublin / **Dribling**
12:30 Sonografos-Dribling / **Dublin**

Aston Birra **Atsedena**

Maite Urtzelaik erakusketa irekiko du gaur Harresi aretoan

Maite Urtzelai margolariak pintura erakusketa irekiko du gaur Harresi aretoan. Abenduaren 19ra arte egongo da zabalik eta honakoa da ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara; zapatu eta jai egunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Bestalde, Kulturateko klaustroan dagoen Xabi Otero argazkilariaren *Oihan hegalean* erakusketaz gozatzeko hiru egun falta dira. Izan ere, domekan, hilak 11, itxiko dute. Arratsaldez bakarrik dago zabalik, 17:30etik 20:30era.

NIRE USTEZ

NEREA MAKAZAGA

Ezinezko diruditenak

Badirudi ezin dela. Batzuetan, ezin da. Ezinezkoak... ezin, eta ezintasun horretan ez aurrera ez atzera, desioari tinko eutsi arren, batzuetan ezin da.

Argumentu guztiak porrotera kondenatu bagenituen, ezin zelako behar zuen izan.

Eta ezin bazuen izan, nahiago ez jakin!

Horregatik estali genituen begiak, horregatik estali belarriak.

Egia da batzuetan, ezina ustea dela, eta usteak gainditu besterik ez direla behar, parez pare ditugun aukerak argiztatzeko.

Inork, ezin duzula esate hutsak, ez du ezinezko dela bermatzen. Inoiz ahal ez izanak, ez du inoiz ahalko ez duzula bermatzen.

Aldiz, egia da batzuetan, zure ahalmen bakanak ez duela zerikusirik.

Eta, batzuetan... ezin da.

Agian burugogorregiak garelako, agian onartu beharrekoak onartu ez ditugulako, agian nahi izandakoak berehalakoan izatera ohituak gaudelako... edo ez.

Ezezkoak ez ditugu gustuko!

Ezezkoek zapaldu gaitzakete, baina ezinezko denaren ilusioaren suntsipenak aurrera egiteko motibazioaren garra eskaini diezaguke.

Eta oraingoan? Nork zehazten du ezinezko dena eta ez dena?

Zer arraio! Oraingoan posible da. Posible da, eta kito! (Badirudi).

"Inoiz ahal ez izanak ez du inoiz ahalko ez duzula bermatzen"

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua
Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

KIWI EKOLOGIKOEN SALMENTA
Banaketa pertsonalizatua
10 kilo 10 euro
Arrazola baserria • Olabarrieta auzoa • Oñati • 670 24 01 69

OHARRAK

LASAI-TOKIREN LUNCHA ERRETIRATUENDAKO
Aspaldiko ohiturari eutsiz, Lasai-Toki elkarteak herriko erretiratuendako luncha iragarri du zapaturako, abenduaren 8rako, 12:00etatik 14:00etara.

AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA
Jardun euskara elkarteak antolatutako amodiozko gutunen lehiaketa 20. ekitaldira iritsiko da aurten. Lanak jasotzeko epea urtarrilaren 7ra arte izango da zabalik eta lau sari banatuko dituzte: irabazleak 500 euro jasoko ditu; bigarren saria 250 euro izango da; bergarar onenarendako, 150 euro; eta, azkenik, 26 urtetik azpiko onenak ere 150 euro eskuratuko ditu. Argibideak *www.goiena.net/blogak/jardun* webgunean edo 943 76 36 61 zenbakian.

ODOL ATERATZEA ABENDUAREN 14AN
Urteko azken odol ateratzea Bergaran abenduaren 14an egingo dute, anbulatorioan, 18:00etatik 20:30era. Lokal berriaren zain, hauxe argitu nahi dute odol emaileen arduradunek: azkenaldian ez dute, lehen egiten zuten moduan, telefonozko deirik egiten emaileei abisatzeko, eta, beraz, herritarrei dei egiten diete etzi anbulatoriora joateko.

POL-POLEKO FEDERATU TXARTELAK
2012ko federatu txartelak egiten hasi dira dagoeneko Pol-Poleko kideak Oxirondo azokako goiko solairuan daukaten bulegoan. Ordutegia hauxe da: astelehen, martitzen eta eguaztenetan, 18:45etik 19:45era. Internetez ere egin daiteke, Pol-Polen webgunean: *www.pol-pol.net*.

LANERAKO IKASTAROAK MIGUEL ALTUNAN
Lanerako formazioa egitarauaren barruan, langile eta langabeendako ikastaroak eskaintzen ditu Miguel Altunak. Katalogo modular berrira lotutako eta %100 diruz lagundutako ikastaroak dira. Argibideak Miguel Altunan, 943 76 70 49 telefonoan.

Babes ofizialeko 32 etxebizitza Urteagan

128 etxe egiteko asmoa daukate; lehen faseko zati bat bakarrik abian

EDU MENDIBIL | BERGARA

Joan den asteko osoko bilkuran alderdi guztiek aho batez erabakitakoaren arabera, babes ofizialeko 32 etxebizitza eraikiko dituzte Urteagan.

Madura Etxegintza SL enpresak eta Udalak aurreko agintaldian sinatu zuten hitzarmena. Bada, orduan adostutako 115 etxebizitza libreak eraikitzen ari dira orain-dik; 24 etxebizitza tasatuen kasuan, berriz, zimentazio lanak aurrera doaz; eta hitzarmenean jasotako babes ofizialeko 128 etxebizitza 64 etxeko bi fasetan egitea adostu zuten.

Lau irtenarazte

Udalak eta Madurak sinatutako hitzarmenean jasotzen denez, bere garaian Urteagaren garapenerako aterarazitako –desalojatutako– lau etxebizitzen kasuan, babes ofizialen lehen fase horretan eman beharko die ostatu enpresa promotoreak, Madurak.

Udaleko iturrien arabera, datozen asteotan aztertuko dituzte, udalbatzan, Urteagako etxebizitza horietako bat eskuratzeko bete beharreko baldintzak. Edozelan ere, Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren araudira egokitu beharko dute. Aurreikuspenen arabera, baliteke izen-ematea urtarrilean hastea eta zozketa, berriz, otsail aldera izatea, notario aurrean.

Bada, zozketa egin eta gero hasiko dira Urteagako babes ofizialeko etxebizitzak egiten. Hain zuzen, egiten ari diren etxebizitza tasatuei jarraituta eraikiko dituzte. Lehen faseko beste 32 etxeak egiteko geratuko dira, oraingoz.

Bi urtean 32 etxebizitza bukatuta egotea espero dute. | E.M.

BIZIKASI

Lan mundurako gertatzen

Urratsbat programaren barruan, norbere kontura lan egiteko sentsibilizatze eta motibatze hitzaldiak jaso dituzte Miguel Altunan. 75 bat lagunek hartu dute parte Debagoieneko teknikari Rakel Garciak eman dako hitzaldietan. Ondoren 16 orduko ikastaroa egiteko aukera izango dute. Jaurlaritzak subentzio natzen du, eta oinarrizko bideragarritasun planak egiten erakutsiko zaie. Negozioren bat martxan jartzeko ikastetxeko baliabide guztiak ere eskura izango lituzkete baita.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

JOXAN ARRAINDEGIA
Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Erakusleiho lehiaketa: hilaren 13rako erakusleihoek gertu egon behar dute

Sari banaketa hilaren 21ean egino dute

E.M. | BERGARA

Aurten ere erakusleiho lehiaketa deitu du Udalak eta abenduaren 13tik aurrera prestatuta egon beharko dute. Edozelan ere, merkataritza establezimendu guztiak aintzakotzat hartuko dituzte lehiaketan, aurrez izena eman beharrik gabe.

Udaleko Kultura Zerbitzuak kaleratutako oinarrien arabera, erakusleihoetan, establezimenduan saltzen diren ohiko artikuluak agertu beharko dira, eta, sariak emateko orduan, besteak beste, publizitate-mezuaren imajinazioa, originaltasuna, eraginkortasuna eta erakusleihoaren kalitatea hartuko ditu epaimahaiak kontuan. Gabonen ostera arte, urtarrilaren 7ra arte, erakusleihoa prestatuta izatea eskatzen zaie herriko dendariei. Era berean, gorosti, goroldio, erratz eta izei naturala apaingarri moduan ez erabiltzea eskatzen dute antolatzaileek.

Hiru sari

Kultura batzordeak, Bedelkar Bergarako merkatarien elkarteak eta Beart Bergarako arte elkarteak izendatutako pertsonek osatuko dute epaimahaia eta hiru sari banatuko dituzte: irabazleak 300 euro eta garaikurra eskuratuko ditu; bigarren sariarendako 250 euro eta garaikurra izango dira; eta, azkenik, hirugarren saria jasotzen duenak 200 euro eta garaikurra eramango ditu.

Ohikoa den moduan, sari banaketa Gabonen atarian egingo dute; epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da eta abenduaren 21ean emango da aditzera, 15:00etan, kultura etxean.

Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea eta barau egingo du LAB sindikatuak astelehenean

Urtarrilaren 7an Bilbon presoen eskubideen alde egingo den manifestaziorako bidean, LAB sindikatuko ordezkariek barau egingo dute astelehenean, hilaren 12, Udal Pilotalekuan. Elkarretaratzea ere egingo dute, 19:00etan, eta kanpin dendak egokituko dituzte gaua han igarotzeko. Bestalde, dei egin diete langile guztiei 12tik 18ra lantokian presoen aldeko pegatina itsatsita eroateko.

Gaztetxoendako DJ emanaldia zapatuan eta 'Herrixa dantzan' ekimeneko saioa domekan Zabalotegin

Bihar, zapatua, DBHko ikasleei zuzendutako DJ jaialdia izango da Zabalotegi aretoan, 18:30etik 21:30era.

Bestalde, dantzazaleendako *Herrixa dantzan* ekimeneko hileroko saioa izango da domekan, abenduaren 11n, Zabalotegin, 18:00etan hasita. Aurreko saioetan jende ugari batu da. Patxi Monterok gidatuko du saioa. Parte hartu nahi dutenek ordu horretan Zabalotegira joan baino ez daukate.

Bergarako Trikitixa Batzordeak trikitilarien parte hartzea eskatu du 2012ko egutegia egiteko

Bergarako Trikitixa Batzordeak herriko trikitilarien egutegia kaleratuko du. Bada, batzordeak aditzera eman duenez, 2012. urteko egutegiak hamabi argazki batuko ditu, hilabete bakoitzeko bat. Egutegian parte hartzeko interesa dutenei dei egin die Bergarako Trikitixa Batzordeak. Kolaboratu nahi duten trikitilariek ondoko helbide elektronikoan egin dezakete eskaera: *btbatzordea@yahoo.com*.

Eraikina hesiz inguratu dute, eraiste lanekin hasi baino lehen. | E.M.

Mariaren Lagundiko 'eraikin berria' abenduaren 19an hasiko dira botatzen

Etxeak egiteko proiektua aspaldikoa da; udaberrian hasiko dira lanak

E.M. | BERGARA

Erregetxo plaza hesiz itxi dute Mariaren Lagundiko *eraikin berria* bezala ezagutzen dena eraisten hastear daudelako. Oraingoz, abenduaren 19ra arte, Ramon Oiartzabal kalean, aldi berean, noranzko bakarrean ibili beharko dira ibilgailuak eta semaforo bidez zainduko dute zirkulazioa. Oinezkoek, bestalde, Mizpildi eta San Pedro kaleak, eta Mariaren Lagundiko eskailerak erabili beharko dituzte Zabalotegiko sarrera eta irteeratarako.

Erregetxo plaza ez ezik, eraikinaren perimetro guztian jarri dituzte hesiak. Arduradunen arabera, 15 bat egun beharko dituzte Erregetxo plaza aurreko eraikina botatzeko. Esan bezala, abenduaren 19an hasiko dira eraikina botatzen.

Aspaldiko proiektua

Ortubairko ordezkarien arabera, behin merkatu-ikerketa txiki bat egin ostean, udaberri aldera etxeak eraikitzen hasiko dira. Proiektuaren arabera, 12 etxebizitza babes ofizialekoak izango dira; beste 13 tasatuak: eta 38 etxebizitza libreak. Hasierako asmoa abuztuan eraikina botatzea zen, baina lanak atzeratzen joan dira, eta, azkenean, Gabonen atarian, hilaren 19an hasiko dira eraiste lanekin. Demoliciones Ryde enpresak egingo ditu lanok. Eguaztenean sei langilek zihardute han; lehenbizi, eraikina hustu eta zaborra sailkatu egin beharko dute, birziklatzera eramateko. Material piloa dauka ateratzeko.

Eraikina 1960ko hamarkadakoa da.

DATUA

63

ETXEBIZITZA

12 babes ofizialekoak, 13 tasatuak eta 38 etxebizitza libreak izango dira.

Etxeak egiteko garairik onena izan ez arren, sustatzaileen arabera, dagoeneko hainbat jendek azaldu du interesa, batez ere eraikina botako zutela konfirmatu denean. Mariaren Lagundiko eraikinaren lekuan etxeak egiteko proiektua aspaldikoa da, eraikina erosi zutela 11 urte betetzear baitira dagoeneko. Ortuibarrek eta Jabier Arregiren Lotzen enpresek egingo dituzte etxebizitzok; lanak, esan bezala, udaberri partean hasiko dituzte ziurrenik.

Ibilbide luzeko aretoa

Mariaren Lagundiko eraikina 1960ko hamarkadaren hasierakoa da; belaunaldi askok jaso dituzte eskolak han. 1990eko hamarkadaren bukaeran utzi zion Mariaren Lagundiak eraikin berria erabiltzeari. Eraikineko ikuskizun aretoak ere aspaldi itxi zituen ateak. Makina bat antzerki, musika eta zine emanaldi izan dira hango aretoan 1970eko hamarkadatik. Azkenetako emanaldia *Oliver!* izan zen; 1999ko udaberrian egin zuen Orfeoiak musika ikuskizun horren estreinaldia Mariaren Lagundiko aretoan. Ordutik ez zen aretoa erabiltzen. Edozelan ere, azken urteotan herriko hainbat taldek lokalak izan dituzte eraikinean.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono, 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Udalak hartuko duen itxuraren fotomuntaia . | OÑATIKO UDALA

Plazako magnoliak modu horretan apainduko dituzte. | OÑATIKO UDALA

Apaingarri iraunkorrak aurtengo Gabonetan

Kontsumo arduragabeari aurre egiteko, erabilitako CDekin eta plastikozko botilekin apainduko dute herria

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Gabonak bertan ditugu, eta Oñatiko Udal Gobernuak buelta bat eman dio garai hauetan izaten den argiteria, apaingarri eta kontsumo arduragabeari. Horretarako, energiaren eta baliabideen erabilera arduratsua batzeko egitasmoa jarri dute abian espazio publikoak apaintzeko. Egitasmo horretan, gainera, herriko ikastetxeen laguntza izan dute: "Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleekin material birziklatua erabilita herriko kale eta plazak apaintzea da gure asmoa", esan digu Leire Egañak, Ingurumen batzordeburuak. Beraz, Gabonetan beste itxura bat hartuko du herriak.

Pinurik ez

Herriko plazan, adibidez, ez dute pinurik jarriko. Horren ordez, plazan dauden magnoliak apainduko dituzte erabilitako CDekin eta plastikozko botilekin. Baita udaletxea ere. Eta apaingarri horiez gain, kontsumo txikiko LED argiteria sistema ere erabiliko dute. Girlandekin apainduko dituzte udaletxeko balkoiak, eta girlanda horiek, Gabon ostean ere, udaletxeko balkoietan uztea da asmoa. Kaleetan, aldiz, herriko ikasleek egindako apaingarriak jarriko dituzte.

Erabilitako CDak eta botilak

Apaingarriak osatzeko erabilgarriak diren materialak aztertu dituzte, eta oinarriak hauek direla ohartu ziren: urtetik urtera erabilgarriak izatea, euriarekiko eta haizearekiko erresistenteak; iraunkortasunaren alde egitea, berrerabilpena bultzatuta edota kontsumo txikiko LED argiak erabilita, eta erabilerrazak izatea.

Ezaugarri horiek kontuan hartuta aukeratu zituzten CDak eta plastikozko botilak. Bada, CDak herritar guztien kolaborazioarekin jaso nahi dituzte udal eraikinetan, eta plastikozko botilak herriko ostalarien laguntzarekin jasoko dituzte.

Oñatiko Udala enpresa baten bitartez egiten ari da egitasmoa, eta, apaingarriak lortzeaz gain, ikasleek ere gaiarekin kontzientziatzea nahi dute; horretarako, ikastetxeetan aurkezpenak egingo dizkiete gaztetxoei. Apaingarriak hilaren 12tik 16ra bitartean egingo dituzte ikastetxeetan.

Helburuak

Egitasmoarekin lortu nahi dituzten helburuak hauek dira: herriko plaza apaintzeaz gain, energiaren aurrezpena kontuan izatea eta materialaren berrerabilpena bultzatzea; Oñatiko ikasleen partaidetza izatea apaingarri horiek egiteko orduan eta herritarrengan eragitea. Apaingarriak hilaren 19an jarriko dituzte herriko plazan eta gainontzeko kaleetan.

CD bilketa hilaren 12ra arte

Oñatiko Udakak herritar guztien kolaborazioa eskatu du CDak batzeko. Hala, bakoitzak dituen CD erabiliak batu eta guztiak jasotzeko jarriko dituzten puntuetara eramatea eskertuko lukete. Puntuak udal eraikin bakoitzean jarri dituzte: udaletxeko eta kiroldegiko harreran, Ongizate Sozioekonomiako lokalean (Bidebarrietan), Euskaltegian, kultura etxean eta Komunikazio eraikinean (Olakuako dorrean). Jasotzera hilaren 12an pasatuko dira.

ULMAko erretiratuendako yoga ikastaroa antolatu dute

Hilaren 14an eta 15ean egingo dira jardunaldiok

A.T. | OÑATI

ULMA Taldeak, bere fundazioaren bitartez eta EESko 2011ko programaren azken ekintza gisa, enpresako erretiratuendako Yoga ikastaroa antolatu du urtea bukatzeko.

Ikastaroaren helburua da yogaren oinarrizko formazio teoriko eta praktikoa eskaintzea. Eta ikastaroa bi jardunalditan emango dute, abenduaren 14an eta 15ean, ULMA Taldeko Zerbitzu Zentraletan, Garagaltza auzoko 51. zenbakian.

Eskolak

Egun bakoitzean bi ordu izango ditu eskolak: goizeko hamarretan hasiko dira, eta hamabietan bukatu.

Lehenengo eskolan, erretiratuek yogaren oinarrizko ezagutzak jasoko dituzte; yoga zer den ikasiko dute eta arnasketaren garrantziaz jabetu ahal izango dira, besteak beste.

Bigarren eskolan, berriz, erlaxatzeko jarrerak ikasi eta praktikatuko dituzte.

Izena emateko

Jardunaldiotako parte-hartzaile kopurua mugatua izango da; beraz, komeni da ekintza honetan interesatuta dauden ULMA Taldeko erretiratuek ahalik eta azkarren ematea izena.

Horretarako, interesa duten ULMA Taldeko erretiratuek bi bide izango dituzte: 943 25 03 00 telefonora deitu beharko dute edo, bestela, *fundación@ulma.com* helbidera mezua bidali beharko dute. Izena emateko epea hilaren 13a, martitzena, bukatuko da. Beraz, komenigarria da egun hori baino lehen izena ematea. Informazio gehiago *www.ulmafundazioa.com* helbidean dago.

Berezao auzoko jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Santa Lutzia eguna martitzenean den arren, Berezaoko auzotarrek merezi duten moduan ospatuko dituzte auzoko jaiak asteburu honetan. Gaur, egubakoitza, hasiko dira ekitaldiak eta domekara bitartean ez dute atsedenik hartuko, askotariko ekintzaz betetako egitaraua prestatu dute-eta.

Egitaraua

Gaur, egubakoitza, haurrendako txokolatea, jolasak eta poneyak egongo dira, 16:00etan hasita. Mus txapelketa, berriz, 21:00etan hasiko dute auzotarrek. Zapatuan auzo-afaria egingo dute auzoko elkartean, eta, guztira, 50 lagun inguru elkartuko direla esan digu Jose Mari Larrañagak, Berezaoko auzo-alkateak. Afariari amaiera borobila emateko, bertsolariak izango dira eta erromeria izango dute kantuan eta dantzan egiteko. Domekan, azkenik, meza nagusia egingo dute; parrokiako abesbatzak kantatuko du, gainera, eta, horren ondoren, luncha egongo da joaten diren guztiendako.

Antxintxiketan KEren loterian inprenta akats bat dago, urtean

Azken hilabete hauetan 3.932 zenbakidun loteria saltzen ari dira Antxintxiketan Kirol Elkarteko kideak. Loteria txartel horretan, baina, inprentan egindako akats bat dago: letra txikiz idatzita jartzen du zozketa 2010/12/22an egingo dela, baina urtea gaizki dago: 2011n, aurten, egingo da zozketa.

Kadete mailako Iker Alberdi lehenengo Lezamako ziklo-krosean

Arrikrutz Oñatiko Kobak ziklo-kros taldeko ordezkariendako iritsi da denboraldiko lehen garaipena, kadete mailako Iker Alberdi lehena izan zen-eta Lezaman. 12. izan zen Xabier Aiastui eta 14. Julen Umerez. Emakumezkoetan, Maider Usandizaga hirugarren, gazte mailan Iker Arkauz 14., eta postu berean iritsi zen Aitor Umerez 23 urtez azpikoen kategorian.

Kolonbiarako dirua batzeko, margolanak salgai plazan

Oñatiko Margo Taldeko kideek elkartasun jardunaldia egingo dute hilaren 17an. Parrokiako Misio Taldeak Kolonbian duen proiekturako dirua batzeko, salmenta berezia egingo dute. Margolanak salgai ipiniko dituzte herriko plazako udaletxeko arkupeetan, 11:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

90 urteko hamar bazkide omenduko ditu Basotxok

M.A. | ARETXABALETA

Santa Luzia egunean, abenduak 13, 1921ean jaiotako bazkideak omenduko dituzte Basotxo erretiratuen elkartean, aurten hamar lagun; zazpi emakume eta hiru gizon. Dantzariek agurtuko dituzte lehenengo (17:00) eta oparia jasoko dute gero; Basotxoko abestaldeak girotuko du ekitaldia, eta bukatzeko, txokolate beroa hartuko dute trikiti doinuek lagun eginda.

Mus eta tute txapelketak

Abenduaren 17an, ostera, tute eta mus txapelketak jokatuko dituzte; tutean goizean egingo dute (11:30) eta musean arratsaldean (15:30). Gainera, parte-hartzaileek eta Basotxoko zuzendaritzako kideek elkarrekin bazkalduko dute.

Eta abenduaren 21ean ere badute ospakizuna Basotxon: opariz betetako 40 otzara zozketatuko dituzte lehenengo bazkideen artean, eta gero, merienda egin.

Bestalde, hilaren 23an GSR zaharren egoitzara joango da Basotxoko abestaldea emanaldia egitera.

Musikak tarte handia du Gabonetako egitarauan

Gospel, soul eta Gabon doinuak izango dira nagusi

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Negurako gertatutako egitaraua banatu du Udalak egunotan eta musikak tarte handia du, ohiko ekitaldiekin batera. Musika emanaldirik interesgarrienak honakoak dira: Aretxabaletako akordeoi orkestraren emanaldia, hilaren 17an; musika eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua, hilaren 20an; The Upper Room gospel talde donostiarraren kontzertua, hilaren 28an; Aretxabaleta Abesbatzaren emanaldia, hilaren 29an; eta Golden Apple Quartet taldearen ikuskizuna (umeendako) hilaren 29an.

Akats bi egitarauan

Negu Kulturala egitarauan hiru akats daudela jakinarazi dute Kulturako ordezkariek, eta zuzentzeko gomendatu: Aretxabaleta Abesbatzaren kontzertua abenduaren 29an da (ez 28an), parrokian; urtarrileko umeendako ikuskizuna, hilaren 3an (ez 2an) eta oraindik zehaztu barik dago zein izango den. Eta Errege kabalgata, urtero legez, urtarrilaren 5ean izango da (18:30).

Aretxabaletako akordeoi orkestrako kideak, kontzertuan. | M.A.

Zirku tailerra

Umeek hiru ikuskizun izango dituzte abenduan: *Maridomingi* ipuin kontaketa hilaren 17an; *Hator, hator… Olentzero dator!* antzezlana, hilaren 23an; eta *Zilarrezko txartela*, hilaren 27an.

Gainera, zirku tailerra izango dute abenduaren 26tik 30era bitartean, 8 urtetik aurrerakoek (11:00 -12:30): monozikloan ibiltzen ikasi, laranjekin malabarrak egin… Izena aurrez eman behar da Arkupen; prezioa 5 euro da.

Jostailu batzea

Bigarren eskuko jostailuak jasotzen dabiltza ludotekan eta Loramendi Elkartean. Astelehena da azken eguna, eta gero erakusketa egingo dute, hilaren 15ean eta 16an, udaletxe zaharrean (17:00-19:00). Jasotako jostailu horiek Caritasi emango dizkiote.

EGUZKIALDE ELKARTEA

Etxebarria eta Arrese txapeldun

Adolfo Etxebarria eta Felipe Arrese izan ziren garaile Eguzkialde elkarteko mus txapelketan (argazkian, Barrutia presidentearekin). Guztira, hamar bikotek jardun zuten norgehiagokan, eta Javi Valle eta Regino Merinori gailenduta jantzi zuten txapela irabazleek. Bi bikote horiek Eguzkialde ordezkatuko dute elkarte arteko mus txapelketan.

Martuteneko espetxera bidaltzeko produktuak hilaren 11 arte jasoko dituzte

M.A. | ARETXABALETA

Debagoieneko Espetxe Pastoraltzak Martuteneko espetxera (Donostia) produktuak bidaltzeko kanpaina jarri du abian. Astean dabiltza jasotzen –parrokiako sakristiara eraman behar dira mezaren ostean– eta azken egun domeka izango da, hilak 11. Produktu horiekin opariak egingo dituzte gero, eta Gabon gauean presoen artean banatu.

Produktu hauek gura dituzte: barruko arropa berria (emakume eta gizonendakoak); galtzerdiak; txankletak (41 eta 45 zenbaki artekoak); tabakoa eta metxeroak; telefonoko txartelak (Telefonicarenak eta pin barik); kartazalak eta seiluak; haginetako eskuila; xanpua eta dutxatzeko xaboia; desodorantea (barra); azazkalak moztekoa; pilak; eta turroi biguna.

Hazkuntza taldeak zer diren argitzeko hitzaldi bi egingo dituzte datorren astean

M.A. | ARETXABALETA

Herriko hainbat gurasok haurren hazkuntzan laguntzeko taldeak jarri gura dituzte abian Aretxabaletan, 0 eta 3 urte arteko umeak dituzten gurasoendako. Eta hazkuntza talde horiek zer diren argitzeko berbaldi bi antolatu dituzte. Zornotzako amatasunari laguntzeko zentroko arduradun Ana Bacigalupe aditua etorriko da; hona egunak: abenduaren 16a, egubakoitza (18:30), eta 19a, astelehena (10:30). Arkupe kultura etxeko bigarren solairuko aretoan elkartuko dira eta interesa duen edonorendako izango dituzte zabalik ateak.

OHARRAK

SEXUALITATE TAILERRA

Sexuaren gainean jarduteko tailerra egingo dute gaztelekuan gaur (18:00). 12 urteko gazteei zuzenduta dago.

ZINEMA: 'AMANECER' ETA 'PHINEAS Y FERB'

Crepúsculo sagan oinarritutako *Amanecer* filma emango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeek Phineas eta Ferb pertsonaia ezagunen abenturak izango dituzte bihar eta etzi (17:00).

PIANO EMANALDIA

Musika Eskolako ikasleek piano emanaldia egingo dute martitzenean (18:00) Arkupen.

BIOETIKA BERBAGAI

Mabel Marijuan EHUko irakasleak *Historia de la ética aplicada a la relación clínica* hitzaldia egingo du hilaren 14an (18:00).

NIRE USTEZ

OIER ETXEBARRIA

Gehiago hobe?

Horaciok Arrasateko ataleko iritzian esan zigunak poza ekarri dit, benetako poza. Mezu baikorrak gustatzen zaizkit eta negu gordinean egonda ere, soinua atera eta esperantzaz beteko gaituen doinua aterako duenik ez zaigu falta.

Beldurrez bete gaituzte; dena galdu beharrean gaudela eta zerbait egin behar dugula entzun dugu. Dena den, hartzen ari diren neurriekin, betikoek gerrikoa estutu eta boteretsuek boterea pilatzen jarraitzen dute. Noiz arte horrela?

Aurreko belaunaldiak baino txarrago biziko garela askotan entzun dut, baina denontzat nahiko ondo bizitzeko baliabideak daudela uste dut. Urte gehiegi dira hazkundearen beharra lelotzat hartuta, gehiago eta gehiago behar dugula sinistuta gaudela: zenbat eta gehiago irabazi, orduan eta hobeto bizi garela, nork bere etxe eta kotxea behar dugula, etxe bakoitzean bi edo hiru kotxe bat baino hobeto, urtero arropa aldatu behar dugula eta berria izan behar dela… Zertarako hainbeste?

Guk baino gutxiago daukanaren aurrean lotsa sentitzeko gaitasuna galdu dugu; bakoitzak daukaguna norberak irabazia dela eta gurea izateko eskubide osoa daukagun ustea sendoa da; mundua, dena den, ez da mugagabea eta hori onartu beharra daukagu. Denontzat ez dago hainbeste eta dagoena hobeto banatu beharra dago. Gutxiagorekin bizi eta ez daukanarekin elkarbanatzeko prest ez bagaude, ezer ez daukatenen artean amaitzeko arriskua gero eta handiagoa izango da.

"Nahiko ondo bizitzeko baliabideak daudela uste dut"

Ur-kontagailuen sistema berria jarriko dute abian

"Irakurketa errazteko sistemak" herritarren parte-hartzea eskatzen duela esan dute

A. ALKORTA | ESKORIATZA

Ur-kontagailuen irakurketa erraztuko duen sistema berria datorren astean jarriko dute abian. Berrikuntza ur-kontagailua etxe barruan duten atarietan egingo da, eta, horren bidez, fakturazioa "erraztu" egingo dela esan dute arduradunek. Dena den, sistemak etxeetako bizilagunen parte-hartzea eskatzen duela aurreratu dute: "Ur-kontagailuko irakurketa orri baten apuntatu beharko dute bizilagunek".

Kontagailua etxe barruan duten atarietan, argazkian ikusten diren moduko orriak jarriko dituzte. "Horrela, ur-kontagailua ikuskatzera datozenean, etxean ez bazaude, orri horretan bertan apuntatu ahal duzu kontagailuaren irakurketa". Sistema berria "erosoagoa" dela diote arduradunek.

Sistema berria ezarrita, abenduaren 12an hasiko dira irakurketak modu horretan egiten. Orduan, etxe barruan ur-kontagailua eduki eta orrian irakurketa apuntatu ez duten etxeetatik bakarrik pasatuko direla aurreratu dute.

Informazioa webgunean

Aldaketa horrekin, astelehenean etxean egon ez eta ur-kontagailua etxe barruan dutenek aukera izango dute kontagailuko irakurketa orri baten idatzi eta etxe sarreran edo atarian lagatzeko. Orria atarian aurkitzen ez badute, Udalak webgunean jarri du eta edornork inprima dezake.

Berrikuntza hori "onerako" dela azaldu dute ur-kontagailu zerbitzua eramaten dutenek, eta, ondorioz, herritarrei parte hartzeko dei egin diete.

Herritar bat, ur-kontagailua irakurtzeko orria betetzen. | A. ALKORTA

Arana kaleko 13. zenbakiko eraikina; etxebizitza bakarra dago. | ASIER ALKORTA

Udalak Arana 13ko etxebizitza erosi du

Etxearen salementarekin, Jose Arana Fundazioak Udalarekin duen zorraren zati bat kitatu du

ASIER ALKORTA | ESKORIATZA

Udalak Jose Arana 13ko eraikineko etxebizitza erostea erabaki du, orain arteko herriko ondarea mantentzeko. "Jose Arana Fundazioak etxebizitza salgai jarri zuen, eta ez da eroslerik aurkeztu". Fundazioak 336.000 euroko zorra dauka Udalarekin eta salmenta horrekin zor horren zati bat kitatu du. Udalak etxebizitza erosi eta gero, gainontzeko zorra mailegu bati esker ordainduko dio Fundazioak Udalari: "Horretarako, hitzarmena egin dugu".

Udaleko Gizarte eta Ogasun batzordeak Jose Arana Fundazioari laguntza eskaintzea aztertu du. "Laguntza bi modutara landu da: Jose Arana 13ko etxebizitza erosita; eta gainerako zorra kitatzeko, fundazioak hartutako maileguari erantzuteko dirulaguntza onartuta".

Etxebizitza erosteko erabakiari dagokionez, Udalak herriko ondarea babestu nahi izan du. "Lehendik ere etxe horrek erabilera soziala izan du eta uste dugu ez dela komeni galtzea".

ESANAK

"Etxebizitza mantentzen jarraitu behar dugu"

BEÑAT HERCE | ALKATEA

Erabakiok urgentziazko ezohiko bilkura baten onartu zituzten, aho batez.

Erosketa egin ahal izateko, Udalak orain arte finantza desorekari aurre egiteko zegoen diru poltsa erabiliko du. "Etxebizitzaren erosketa koltxoi horren kontura egingo dugu", esan du alkateak.

Guztira, 170.000 euro kostatuko zaio Udalari erosketa hori. "Gero, horri, eskrituren gastuak gehitu behar zaizkio, baina 1.200 euro inguru dira horiek".

Gainontzeko zorra

Etxebizitza saltzeaz gain, fundazioak mailegu bat ere eskatu du. "Gainontzeko zorra kitatzeko fundazioak mailegua eskatu dio kreditu entitate bati. Hasiera baten, fundazioak ez du arazorik izango mailegu hori ordaintzeko. Horrela gertatuko ez balitz, Udalak kreditua ordaintzeko laguntza emango lioke".

Horretarako, Udalak Jose Arana Fundazioarekin hitzarmena formalizatu du. "Hitzarmen horretan, fundazioak hilero ordaindu beharreko kuota, orain arteko prebisioak eta bestelakoak jaso dira".

Txarrenean jarrita, hitzarmena tarteko, Udalak urtero 24.000 euroko dirulaguntza eman beharko lioke fundazioari. "Hori, txarren-txarrenean jarrita", esan du Hercek.

Amuskak antolatutako Gabonetako sukaldaritza ikastaroan izena emateko epea bihar amaitzen da

Amuska elkarteak urtero antolatzen duen Gabonetako sukaldaritza ikastaroan izena emateko epea bihar amaitzen da. Ikastaroan hamabi lagun inguruk parte hartu ahal izango dutela azaldu dute antolatzaileek: "Izena ematen duten lehenengo hamabiak hartuko ditugu". Horretarako, izena emateko, interesatuek Euskadiko Kutxan sartu beharko dute dirua: 00-44-85-0441021091. Dirua sartzen dutenean, *Sukaldaritza* izena eta dirua sartu duenaren izen-abizenak zehaztu beharko direla gaineratu du elkarteak. Ikastaroa abenduaren 13tik 15era egingo da, 18:00etatik 20:00etara, erretiratuen etxean. Ikastaroa Maria Jesus de Miguel sukaldariak emango du.

GOIENA

Ikastetxeak euskararen alde egin du

Joan den zapatuan Euskararen Nazioarteko Eguna zela aprobetxatuz, egubakoitzean Luis Ezeiza Herri Ikastetxeko ikasleek, irakasleek eta gurasoek jaia egin zuten. Eguraldi txarragatik, baina, jaia Herriko Plazan egin ordez pilotalekuan egin zuten, eta ondo baino hobeto pasatu zuten guztiek. Izan ere, euskal dantzak egiteaz gainera, abestu ere egin zuten. Horren ondoren, 16:00 aldera, gaztaina-erreak jan zituzten.

Josu Ormazabal | Pausokako presidentea

"Jaiotza-tasa ikusita, eskola txiki geratu da"

Urriaren 20an berritu zuten Pausoka guraso elkartea, eta sei kide berri daude

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Joan den urriaren 20an egin zuen urteko batzar orokorra Pausoka guraso elkarteak eta bertan erabaki zituzten bi urterako sei kide berri, baita presidente berria ere. Josu Ormazabalek hartu berri du kargu hori eta elkartearen asmoez aritu gara harekin.

Kide berriak dituzue orain elkartean.

Urrian egindako urteko batzarrean sei kidek laga zuten elkartea eta beste sei sartu ziren: Pedro Iturbe, Aitor Azkarate, Aitziber Iztueta, Olatz Lezeta, Maite Aristi eta Ander Murgiondo. Bigarren urtea egingo dugu Agurtzane Ollokiegik, Jon Legorburuk, Carlos Sebalek, Ainhoa Berezibarrek, Gurutz Zabalok eta nik neuk. Hamabi kide gaude eta sei lantalde ditugu; bi lagunek parte hartzen dute lantalde bakoitzean.

Ikasturte honetarako ze ekintza dituzue esku artean?

Badaude ekintza batzuk urterokoak direnak: Santo Tomas egunerako txistorra gertatzea, Gabon eguneko Olentzeroren kalejira, Inauterietan torradak eta txokolatea gertatzea eta Antzuolako jaietako eguenean bazkaria prestatzea. Horrez gain, kurtsoan zehar lehen sorospeneko eskola antolatuko dugu 6. mailakoendako eta igeri -ikastaroa egingo dute 2., 3. eta 4. mailetakoek maiatzean. Hiru asteko ikastaroa izango da eta aurten Bergaran egingo dute. Bestalde, hitzaldiak egiteko asmoa ere badugu. Haurreskolan psikopedagogiaren gaineko hitzaldiak egiten ari dira eta eskolako guraso guztiendako nahi dugu gai horren gaineko hitzaldia antolatu.

Josu Ormazabal, eskolako gela baten. | USOA AGIRRE

"Badaude ekintzak urterokoak direnak: Santo Tomas, Olentzero..."

Eskola kirolean ere gurasoak aritzen dira entrenatzaile lanetan.

Entrenatzaile lanetan ari diren gurasoak boluntarioak dira; gela bakoitzeko gurasoei egiten zaie deia parte hartzeko.

Jangelako janariaren gaineko kezka ere azaldu zenuten.

Jangelan eskaintzen diren jatorduetan ahal dela bertako produktuak erabiltzeko eskaera egin genuen Hezkuntza Sailean. Baina oraindik ez digute horren gainean ezer erantzun. Guraso batzuek kezka azaldu zuten eta galdeketa egin zen gainerako gurasoen artean. Kezka zabalagoa zela jakinda egin zen eskaria.

Eskola txiki geratzen ari dela ere aipatu izan duzue.

Bai. Urteotako jaiotza-tasei begiratuz gero, ikusten da bi urte barru ez direla ume guztiak sartuko eskolan. Pausokak, eskolak eta udalak osatzen duten herriko eskola kontseiluak egina du eskaera Eusko Jaurlaritzan eskola handitzeko. Horretarako beharra ikusten dute Jaurlaritzan, baina datorren ikasturtean ere horrela jarraitu beharko dugu, orain daukagun eraikinean.

OHARRAK

FUTBOLA

Kadeteen 1. mailako futbol taldeak Arrasaten jokatuko du bihar, zapatua, 11:00etan, Mojategin. Joan den aste bukaeran 0-3 galdu zuten etxean Antzuolako mutilek Eibartarrak taldearen kontra. Sailkapenean azkenak dira antzuolarrak, hiru punturekin. Bihar aurrean izango duten Arrasateko taldea, berriz, bigarren dago sailkapenean, 23 punturekin. Infantil mailako zortziko futboleko taldeak, berriz, atsedenaldia izan zuen joan den aste bukaeran eta bihar, zapatua, jokatuko du 7. jardunaldiko partidua Juventudes de Americaren kontra, 14:00etan, Donostiako Cesar Benito futbol zelaian. Antzuolako taldea bigarren dago, 13 punturekin; Juventudes de America, berriz, bosgarren, 9 punturekin.

PILOTA

Manex Balerdik 2-0 (8-2 eta 8-1) galdu zuen Lazkaoko pilotariaren aurka aste bukaeran. Ondorioz, final-zortzirenetan kanporatua izan da Olaldeko pilotaria.

ATEZ ATEKO BATZORDEA

Atez atekoaren hurrengo jarraipen batzordea abenduaren 14an, eguaztena, izango da, Olaranen, 18:30ean.

Larruzko paleta jokalariak finalerdietarako sailkatu dira partidu guztiak irabazita

Joan den egubakoitzean jokatu zuten Mansok eta Alberdik Gipuzkoako Ezker Horma txapelketako laugarren jardunaldia. Usurbilgo Zubeldiari eta Arrutiri 35-25 irabazi zieten. Bada, partidu guztiak irabazita, finalerdietarako sailkatu dira Olaldeko pilotariak. Abenduaren 23an jokatuko dute finalerdia, partidu bakarrera, Antzuolan bertan.

Preferente mailako futbol taldeak etxean jokatuko du bihar Ordiziako taldearen kontra

Joan den aste bukaerako atsedenaldiaren ostean, aste bukaera honetan jokatuko du preferente mailako futbol taldeak 13. jardunaldiko partidua. Ordizia izango du aurrean bihar, zapatua, Eztalan, 16:00etan. Antzuola laugarrena da sailkapenean, 20 punturekin. Ordizia, berriz, bosgarren dago, antzuolarrengandik bi puntura.

Erretiratuen txistor-janean izena emateko epea zabalik egongo da abenduaren 14an eta 15ean

Abenduaren 22an txistor-jana egingo dute erretiratuen elkartean eta izena eman beharra dago, arduradunek zenbat txistor erosi jakin dezaten. Abenduaren 14an eta 15ean eman beharko da izena erretiratuen tabernan. Bestalde, abenduaren 11, domeka, da karta-joko txapelketan izena emateko azken eguna. Abenduaren 13tik 16ra jokatuko da txapelketa.

Kongoko proiektuaren gaineko hitzaldia egingo dute Arbulu eta Madinabeitiak eguenean

Bigarren urtez egon dira Bittor Arbulu antzuolarra eta Tomas Madinabeitia Kongon, irailean. Iaz, Kapiri herriraino ura kanalizatzeko lanetan aritu ziren. Aurten, berriz, herrian iturriak jartzea izan da asmoa, eta, horrez gain, ondoko herri batera ura eramatea. Proiektuaren gaineko xehetasunak emango dituzte abenduaren 15ean, eguena, 18:30ean, Olaranen, Anelkarren eskutik.

NIRE USTEZ

FERNANDO LETE

Konponbide garaia

Urtetan espero genuen berria iritsi da: bide latz eta mingarriei amaiera emanez ETAk biolentzia armatuaren amaiera iragarri du, Aieteko itunaren lehen eskakizunarekin bat eginez.

Zenbat hildako eta zauritu, zenbat zauri eta malko, zenbat errepresio eta tortura, zenbat iraultza zerga eta xantaia, zenbat txikizio, zenbat preso eta iheslari, zenbat giza-eskubide urratuak, zenbat haserre eta gorroto, zenbat kilometro maltzur urrutiko kartzeletara, zenbat bahiketa... Zein atera da garaile ibilbide mingarri honetan? Ez al gara denok galtzaile izan eta biktimak neurri desberdinetan? Hortxe gordingordinean lehen ikasgaia, gertaturikoa berriro gerta ez dadin.

Indarkeriaren amaierako lehen pausoa emana dagoenez, konponbiderako urratsak emateko garaia da. Lehenik, ezinbesteko eta premiazkoa da Sorturen legalizazioa. Beharrezko dira presoen inguruko neurri eskuzabalak ere, beraien eskubide guztiak errespetatuz, eta batez ere biktima guztiei gertutasuna eta babesa eskaintzea. Baita irtenbide politiko berriei ateak irekitzea eta berradiskidetzerako pausoak ematea ere.

"Gertaturikoa ahaztu gabe, etorkizunari aurre egin behar diogu"

Eskertu nahi nituzke bakerantz egindako ahalegin guztiak, Brian Currinen taldeak egindako lan paregabea, eta alderdi eta erakunde desberdinen lan isila. Esperantzaren bidetik, konponbide garaira iritsi gara, eta, gertaturikoa ahaztu gabe, etorkizunari aurre egin behar diogu.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Aramailur kontsumo taldea, handitzeko gertu

Ia urtebeteko jardunaren ostean, jende berria hartzeko gertu daude; 11 dira eta 20 bat izatea gura dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramailur aurrera doa. Ia urtebete pasa da dagoeneko Aramaioko kontsumo taldea martxan jarri zenetik. Ia urtebete martitzenero 19:00etan udaletxeko arkupean elkartu eta Aramaioko bertako barazki ekologikoez osatutako otzarak jasotzen.

Bada, esperientzia egonkortu ostean, taldea handitzeko moduan daude orain eta ateak zabaldu gura dizkiete kontsumo taldeko kide izan gura duten guztiei: "Zuk ere produktu osasungarriak nahi badituzu eta kontsumitzeko era arduratsuagoaren bila bazabiltza, hurbildu edozein martitzenetan udaletxeko arkupera eta informatu".

Kontsumo taldearen gainean informazioa jasotzeko beste modu bat da *aramailurtaldea@gmail.com* helbide elektronikora mezua bidaltzea. Interesatuek urtea amaitu aurretik, abenduaren 31a baino lehen, egin beharko dute eskaera.

Kontsumo taldekoak martitzenero elkartzen dira udaletxe azpian. | J.B.

Baldintza aipagarririk ez

Mikel Oceja kontsumo taldeko presidentearen arabera, 2012ra begira 11 kide egongo dira Aramailur taldean. Taldea hedatzea unea heldu dela uste du Ocejak, baina asmoa ez da izugarri handitzea, eskaintza ere mugatua delako: "11 kide gara eta 20 bat -edo izatea gura dugu".

Eta zergatik egin Aramailur taldeko kide? Honela azaldu digu: "Esperientzia posible dela frogatu dugu eta bertako ekoizleendako irteera bat ere bada. Gainera, Aramaion gero eta denda gutxiago daude produktuak erosteko eta gurea kontuan hartzeko beste irteera bat da, bertako produktuak kontsumitzeko modu arduratsua". Egun barazkiak dira nagusi, baina haragia, arrautzak, esnea eta gazta ere sartzen da martitzeneroko saskian.

Ez dago baldintza aipagarririk kontsumo taldeko kide egiteko. Egokiena da martitzenean 19:00etan udaletxeko arkupera joan eta funtzionamenduaren berri bertatik bertara izatea.

ESANAK

"Esperientzia posible dela frogatu dugu, irteera bat da"

MIKEL OCEJA | PRESIDENTEA

Zabalik dago Orixolen federatzeko aukera

J.B. | ARAMAIO

Orixol mendizale elkarteak abian jarri ditu 2012ko federatu txartelak. Orain arte federatu ez denak Orixol elkarteko kideekin egon behar du abenduaren 18a baino lehen, edo, bestela, mezua bidali dezake *orixolme@hotmail.com* helbide elektronikora.

Helbide horretan edo Orixol mendizale elkarteko ordezkariekin egonda Euskal Mendi Federazioko 2012ko tarifen berri izateko aukera ere badago. Bestalde, iaz izena eman zuten bazkideei eta federatuei aurrez emandako kontu korronte zenbakitik kobratuko diete 2012ko kuota, abenduaren 18a baino lehen kontrakorik esaten ez badute.

Bazkide kanpaina berria

Bestalde, bazkide kanpaina berriarekin ere hasi dira Orixoleko arduradunak. Urteko kuota hamar euro da –haurrek bost euro–, eta bazkide egiten direnek hainbat irteeretan deskontuez gozatzeko eta Orixol elkartearen materiala jasotzeko aukera izango dute.

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka, udal politika "aktiboa"

Joan den egubakoitzeko osoko bilkuran, Aramaioko Udalak emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako mozioa onartu zuen. Hala, Udalak konpromisoa hartzen du bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika "aktibo, osoa eta koordinatua" garatzeko, hitzetik ekintzetara pasatuta.

Horregatik, ikur ofiziala den puntu morea udaletxeko balkoian jarriko dute.

Euskararen aldeko konpromisoa berretsi du Udalak

Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan euskararen aldeko jarrera berretsi zuen Udalak, azken bilkuran mozio bat onartuta. Zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileen euskalduntzea bermatzeko Udalaren esku dagoen guztia egiteko konpromisoa onartu zuen udalbatzak. Horrez gain, udal langileen lehen hitza eta barne funtzionamendua euskaraz izateko lanean segituko dute. Euskaraz bizi izateko eskubidea bermatu gura diete aramaioarrei.

Espainiako gerrak Aramaion izan zituen ondorioak ezagutzera emateko, erakusketa hilaren 16an

J.B. | ARAMAIO

Aramaioko Ondarea Berreskuratzeko Taldeak (AOBT) antolatuta, 36ko gerrak Aramaion izan zituen ondorioak ezagutzera emateko erakusketa egongo da abenduaren 16tik 18ra. Sastiñan irekiko dute eta Intxorta 1937 kultura elkarteak utzitako Aramaioko argazkiak erakutsiko dituzte, besteak beste. Antolatzaileen helburua emateaz gain informazioa jasotzea ere bada. Izan ere, Espainiako gerrak Aramaion izan zuen eragina aztertzeko herritarrez osatutako lantalde bat osatu gura dute.

Aurkezpen ekitaldi berezia

Esandako moduan, abenduaren 16an irekiko dute erakusketa, 19:30ak aldera. Aurkezpen ekitaldi berezia egingo dute: Manex Agirre eta Jokin Labayen bertsolariek agur bertso bat abestuko dute eta gero Eneko Barberena literatur sortzaile arrasatearrak gaiarekin zerikusi zuzena duen testu bat irakurriko du.

Amaitzeko, Espainiako Gerraren gainean Joseba Tapia musikari ospetsuak idatzitako bertso batzuk abestuko dituzte Labayen eta Agirrek.

Murugaingo indusketen harira antolatu du erakusketa AOBTk. | ARTXIBOA

Bizente Goikoetxea abesbatzakoak, duela gutxi egindako entsegu baten. | J.B.

Bizente Goikoetxearen Gabonetako kontzertua domekan, meza ostean

J.B. | ARAMAIO

Gabonak ate joka ditugula-eta, Bizente Goikoetxea abesbatzak agenda lepo beteta izango du datozen egunotan. Domeka honetan, abenduak 11, Gabonetako kontzertua eskainiko dute elizan, mezaren ostean.

Bittor Kortabarria abesbatzako presidenteak jakinarazi duenez, 12:30 aldera hasiko da kontzertua eta honako kantu hauek abestuko dituzte: *Aleluia* (Rosa Vernans), *Gurea da* (Sabin Salaberri), *Gabiltzan kalez kale* (Pablo Sorozabal), *Txanton Piperri* (B. Zapirain). Eta, noski, Gabon kantuak ere ez dira falta izango: *Oi Betlehen*, *Oh luz de Dios*, *Haur eder baten bila*, *Irten ezazu*, *Gloria In Excelsis Deo*, *Birgina Maite* eta amaitzeko, *Haurtxo maite*. Arrasate Musikaleko txistulari talde baten laguntza izango dute. Abesbatzako kideek gonbidapena luzatu die aramaioar guztiei kontzertura joateko: "Etorri Gabon kantu batzuk eta beste mota bateko abesti alai batzuk entzutera".

Hilaren 18an, Arrasaten

Domekako emanaldiaz gain, datorren abenduaren 18an Arrasaten egingo dute kontzertua, San Andres auzoan.

Egun horretako abestien errepertorioa domekakoaren antzekoa izango dela iragarri du Kortabarriak.

ELGETA

Ostalaritza arloaz arduratzeko jende berria behar da Espaloian

Ziklo berri batek zer emango duen zain, kultura jarduerak aurrera egingo du

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bolo-bolo dabil kalean Espaloia kafe antzokia itxi egingo dela. "Ez da egia", adierazi dute arduradunek, "ostalaritza kudeaketaz arduratuko den talde gogotsu baten bila gabiltza".

Azaldu dutenez, urtarrilaren 2tik aurrera ez dira Espaloiko lan-bazkide izango azken urteotan ostalaritza arloarekin lotuta ibili diren Gorka Arizmendiarrieta eta Garbiñe Ormaetxea. "Erabakitzeko dago tabernarekin eta sukaldearekin zer egingo dugun, baina kultura jarduerak aurrera egingo du", ziurtatu dute.

Lankide berri bila

Espaloia hausnarketa prozesu batean sartuta dagoela iragarri dute arduradunek; ziklo berri baten atarian. Lehen pausoa izan da Goibeko elkarteko bazkideekin batzarra egitea. Han azaldutako moduan ixtea azken aukera litzake, eta momentuz oso urrun ikusten dute aukera hori. "Espaloiaren etorkizuna ezin da beltz marraztu. Ostalaritzari lotuen dagoen zerbitzuak jende berria behar du; haize freskoa ekonomikoki bideragarria den proiektuari gogoz heltzeko".

IBAN ARANTZABAL | GOIBEKO ELKARTEKO PRESIDENTEA

"Etorri zaigu jendea galdetzera eta oso positibotzat hartzen dugu"

Espaloia itxi egingo da?
Ezin dugu afirmatu. Esperantza da aurrera egitea. Beste kontu bat da jende berriak eraman lezakeen aurrera.

Ostalaritzarik gabeko antzokia ez da posible?
Posiblea bada, baina ez da modurik onena. Ostalaritza eta kultura jarduna batera planteatuta eraginkorragoak gara helburuak lortzeko.

Arantzabal. | ARIZMENDIARRIETA

Kultura arloa ondo doa?
Igarri dugu jaitsiera txiki bat, baina inguruko antzokien datuekin konparatuz jendeak erantzun egiten du.

Zazpi urteotako balorazioa?
Guztiz positiboa. Erakutsi dugu herri txiki batean kafe antzoki bat posible dela; irabazle zuzenena herritarra izanik proiektua bideragarria dela.

Ziklo berri baten atarian

Zazpi urteko ibilbidea egin du kafe antzokiak eta gertu jarraituko dute aurrerantzean ere Arizmendiarrietak eta Ormaetxeak. "Gerturatu zaigu jendea ia zertan lagundu dezakeen galdetzera eta hori oso positibotzat hartzen dugu", esan du Goibeko euskara elkarteko presidente Iban Arantzabalek. "Erakutsi dugu herri txiki batean kafe antzoki bat posible dela, kultura kalitatez egin daitekeela, eta irabazle zuzenena herritarra izanik proiektua bideragarria dela".

VIII. PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe	17-22
Antxoka Etxabe - Igor Irazabal / Mikel Ormaetxea - Garikoitz Arrazola	18-22
Satur Ramos - Mikel Arkarazo / Alex Arantzabal - Iñaki Izagirre	07-22
Iker Irazabal - Diego Cantabrana / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga	18-22
Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi	22-17
Iban Retolaza - Jabier Larrañaga / Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua	22-16
Asier Morales - Koldo Goenaga / Satur Ramos - Mikel Arkarazo	22-07

BARIKUKO PARTIDUAK, 20:00ETAN

Pello Larrea - Mikel Elkoro / Alex Arantzabal- Iñaki Izagirre
Odei Zenitagoia- Andoni Elortza / Iker Irazabal-Diego Cantabrana
Ibai Etxaniz-Jon Irazabal / Mikel Ormaetxea- Gari Arrazola
Antxoka Etxabe-Igor Irazabal / Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga

DOMEKAKO PARTIDUAK, 11:30EAN

Iban Retolaza-Javier Larrañaga / Sergio Bouzas-Koldo Erostarbe
Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Oskar Sarasua-Etor Garate

Urriko langabezia jaitsierak ez du askorik iraun: azaroan, aurreko langabezia mailara itzuli gara

Urriak 2011ko langabezia datu onenak utzi zizkigun, baina joera hori ez da denbora luzerako izan. Nahiz eta 2011n datu txarragoak ezagutu izan ditugun, azaroak 40 langabe eta %8,13ko langabezia -tasa utzi digu. Urrian langabeak 31 ziren eta langabezia-tasa %6,30. Debagoieneko langabezia datuekin alderatuta –%9,58– hobetoxeago gaude, baina oso gertu gabiltza.

Elgetako Udala gustura Bergarako saskibaloi sailarekin itxi duen akordioarekin

Udalak itxi du Bergarako saskibaloi sailarekin aurreko agintaldi amaieratik lantzen ari zen hitzarmena. Adostutakoa da hilean behin gaztetxoendako saskibaloi saio ireki bat egitea –dagoeneko bi egin dira– eta, ahal den neurrian, Elgetan saskibaloi torneo txiki bat antolatzea. Horren trukean Elgetako Udalak 400 euroko dirulaguntza emango dio Bergarako saskibaloi sailari.

Ruper Ordorika Espaloia kafe antzokian izango da domekan, eta aurretik Joseba Irazokik joko du

Hodeien azpitik azken diskoa aurkeztera dator oñatiarra eta domekan, abenduak 11, antzokian izango da, 19:00etan hasiko den kontzertuan. Aurretik, baina, Joseba Irazoki beratarraren musika entzuteko aukera izango dugu. Hain zuzen, Ordorikari txanda eman aurretik, Irazokik ordu erdiko saioa egingo du. Sarrerak salgai daude dagoeneko.

Xalbadorpe erretiratu elkarteak antolatuta bingoa egingo dute astelehenean, abenduak 12, Ozkarbin

Herenegun Ikusi Makusi taldekoen antzezlana ikusi zuten herriko erretiratuek antzokian. Bada, astelehenean bingoa egingo dute Ozkarbi elkartean, 17:00etan hasita, eta eguaztenean, hilak 14, Bergarako Alai taldearen emanaldia izango dute, 18:00etan. Barikuan, azkenik, erretiratuendako luncha egingo dute.

Gabonetako bolo txapelketa bihar eta hilaren 17an

L.Z. | ELGETA

Bihar, zapatua, jokatuko da Gabonetako bolo txapelketako lehenengo jardunaldia. 23:00etan dute hitzordua herriko bolariek Bolatoki tabernan. Sariak egongo dira bolari onenendako. Batutako diruaren %35 onenarendako, %25 bigarrenarendako eta %15 hirugarrenarendako.

Txapelketako bigarren jardunaldia hurrengo zapatuan, hilak 17, jokatuko da. Kasu horretan, sari berezia ere egongo da: erregulartasun saria, hain zuzen ere.

2012ko aurrekontuaren nondik norakoak aztertzen hasiak dira

L.Z. | ELGETA

Udala hasita dago 2012ko aurrekontua lantzen. Azaroan egindako osoko bilkuran Oxel Erostarbe alkateak adierazi zuen zirriborro bat dagoeneko mahai gainean dutela. Gainerako zinegotziei zirriborro hori aztertzeko eskatu zien eta lan hori pare bat asteko epean egiteko premia azpimarratu zuen.

Erostarbek urtea amaitu orduko onartu gura du 2012ko aurrekontua eta zirriborro horretan jasota dauden diru sailak batzordeburu guztiekin aztertu gura dituela esan zuen. Hala, lan bilerak egiteko asmoa agertu zuen.

Bilduk batzarra gaur

2012ko aurrekontua dela-eta Elgetako Bilduk batzar informatzaile batera deitu ditu herritarrak. Batzar hori gaur, barikua, abenduak 9, egingo dute, udaletxean, 19:00etan.

Egindako deialdian Elgetako Bilduk azaldu du asmoa dela batzar horretan herritarrei azalpenak ematea eta elgetarren iritziak jasotzea. Laster onartu beharko den 2012ko aurrekontua dela-eta hainbat erabaki hartu beharko dira eta Elgetako Bilduk erabaki horiek ahal den herritar gehienekin konpartitu gura ditu.

LEINTZ GATZAGA

Ponpak jartzea falta da ur depositu berriaren lanak bukatzeko

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Orain dela hilabete batzuk iragarri zuten abendurako bukatuko zituztela Gatzagaingo ur deposituaren lanak, eta Udaleko Hirigintza Saileko kideek argitu dute bide onetik doazela lan horiek. Azken ukituak egiten dabiltza egunotan, eta lanak egin eta hodiak sartzeko apurtutako bazterrak egokitzen: bideak konpondu, zelaiak txukundu, ur depositua margotu...

Gaztainuzketarako ura

Dagoeneko hainbat proba egin dituzte urarekin deposituan bertan, dena bukaerarako utzi barik, eta laster bukatutzat emateko moduan egongo da eraikitze lan hori. "Orain, ponpak jarri eta ur depositua konektatzea bakarrik geratzen da", jakinarazi dute. Ponpa horien bitartez herria urez hornitzen duen depositutik igoko dute ura Gatzagaineraino.

Lan horiek guztiak egindakoan, depositu berritik Gaztainuzketako mendi etxeetara ura eroateko hodiak sartuko dituzte. "Epe motzera" egiteko asmoa du Udalak; Goierri auzora doan lotunea egiteko, ostera, aurretik dirulaguntzak lortu beharko dituztela jakinarazi dute.

Bularreko minbiziaren gainean berbaldia egingo dute martitzenean

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Bularreko minbizia goiz antzemateak duen garrantziaren gainean berbaldia egingo dute martitzenean, hilak 13, kultura etxean (18:00). Bularreko eta ginekologiako minbizia duten emakumeen Gipuzkoako elkarte Katxalinek antolatu du, eta emakume guztiendako dela interesgarria azaldu.

Berbaldia Donostiako Institutu Onkologikoko mediku Arrate Plazaolak egingo du; izan ere, hark uste du informazioa zabaltzea ezinbestekoa dela prebentziorako.

Gai hauek landuko ditu, besteak beste: bularreko minbiziaren arrazoiak; azterketek duten garrantzia; tratamenduak; prebentzioa...

FUTBOLA

Urtebete geroago, Bergara eta Aloña Mendi Agorrosinen

- Bergarak etxean jokatutako azken hiru partiduak irabazi ditu
- Bolada ederrean dator Aloña Mendi, lau partidu jarraian irabazita

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Egutegiaren kapritxoak, iazko garai berean (359 egun) itzuliko da Aloña Mendi Agorrosin futbol zelaira derbia jokatzera. Datu bat da, beste barik; partiduaren prebia hasteko aitzakia. Baina iazko derbiak eman zuena errepasatuta, zaleek oraingoan gehiago eskatuko diete jokalariei. "Zapatuan Agorrosinera joandakoek ez zuten ezta golen arrimuan berotzeko aukerarik izan; partiduak hotz utzi zituen bi taldeetako zaleak", idatzi genuen orduan. Izan ere, Oskar Maiztegiren eta Pablo Diezen mutilek 0-0 egin zuten.

Andoni Azkargortak, Agorrosinera iazko egun beretsuetan joango direla komentatuta, segituan bota du galdera: "Zein izan zen iazko emaitza?". Eta orduan lortutako berdinketa –Oskar Maiztegi eta Pablo Diez ziren entrenatzaileak– firmatuko lukeen galdetu diogu: "Ez, baina baliteke partiduaren nondik norakoen arabera husnako berdinketa ona izatea guretako. Etxean irabaztetik gatoz, eta Agorrosinen berdintzea urrezko puntua izango litzateke guretako". Bergarako entrenatzaile Neka Galani ere galdera bera etorri zaio burura, eta hark ere barrez erantzun du ez duela nahi berdinketarik: "Baina baliteke partidu amaieran beste erantzun bat ematea".

Iazko derbian bi taldeek izan zituzten gol-aukera garbiak markagailuan aurrea hartzeko (0-0). | JOSETXO ARANTZABAL

Ondo ezagutzen dute elkar

Azken jardunaldian Bergarak ez du punturik batu, baina Agorrosinen mahoneroak indartsu dabiltza: "Zaila izango da eurei golen bat egitea, batez ere defentsan oso lerro sendoa daukatelako eta Agorrosinen zelan jokatu ondo dakitelako", adierazi du Azkargortak.

Bergarako entrenatzaileak berba onak baino ez ditu izan Aloñarendako: "Gertutik jarraitu ditut Aloñaren partidu asko, eta liga hasieratik ona kategoria osoan progresio handiena izan duen taldeetako bat da. Pasaia, esaterako, hasieran moduan dago. Aretxabaletak eta Mondrak ere hobekuntzak izan dituzte, baina ez Aloñak beste. Azken partiduan ez nien makalune txikiena ere sumatu, lerro guztietan indartsu. Konfiantza dute egiten dabiltzan lanean, eta igarri egiten da. Eurak moduan gu ere txarto hasi ginen, baina bi taldeok aurrerapauso handiak egin ditugula uste dut".

Agorrosingo zelaia, bikain

Iaz Agorrosineko berdeguneak ez zuen aurpegirik onena erakutsi; euria egin zuen aurreko egunetan, eta oso pisutsu zegoen zelaia. Ez dirudi, baina, zapatuan halakorik gertatuko denik: "Aste barruan alfonbra berdea zirudien, eta aste hasieran euria bota badu ere zapaturako lehor egongo da, futbolean jokatzeko egoera ezin hobean".

Mondrak eta UDAk ere etxean

Derbiaz batera Mondrak eta Aretxabaletak ere etxean jokatuko dute asteburuan. Real Unionen bisita izango du bihar Arrasateko taldeak, eta Beti Gazterena Aretxabaletak, domekan.

ESANAK

"Aloña da ligan progresio handiena izan duen taldea"

NEKA GALAN | BERGARA

ESANAK

"Agorrosinen zaila da Bergarari gola sartzea"

ANDONI AZKARGORTA | ALOÑA

SASKIBALOIA

Natra Oñati kategorian lider dagoen CD Estelaren kantxara

X.U. | ARRASATE

Kontrario gogorra izango dute Xabi Igartuaren mutilek bihar Santanderren (18:30, kiroldegi nagusia). Kantabriarrei ez zaie axola etxean edo kanpoan jokatu, orain arteko partidu guztiak irabazi dituzte-eta; joan den astean, esaterako, errepaso ederra eman zioten Deportes Ferrer taldeari Logroñon (53-90).

Ahalik eta partidurik txukunena egiteko asmoz joango dira oñatiarrak, kategoria honetan hainbat talde beste maila batekoak direla kontuan hartuta. Ikusteko dago AEBetako Darius Scott moduko jokalariek ze maila erakusten duten, jakinda azken asteko MVPa etxean dugula, Asier de la Iglesia. Izan ere, 26 puntu eginda, 13 errebote jasota eta bi asistentzia egin eta beste bi baloi errekuperatuta, De la Iglesia izendatu dute asteko jokalari onena.

MUk Zarautzen

Arrasateko taldeak aurrealdeko postuetan dagoen Leihoak Zarautz taldearen kontra jokatuko du domekan (17:00). Etxetik kanpora jarraian jokatuko duten bigarren partidua izango da, biak kontrario gogorren kontra. Joan den astean Seky taldeak ondo zigortu zituen (89-51).

TRANSANTARTIKA 2011

Kometekin aurrera, hotz galantarekin

Naturgas BBK Transantartika espedizioko kideak martxa onean dabiltza kilometroak egiten. Dagoeneko 460 kilometro inguru egin dituzte, edo hori uste du Juan Vallejok, espedizioan erabiltzen dabiltzan gailuak ondo menderatzen dituenak; aparailu elektronikoek –eta abenturazaleek– zero azpitik 45 graduko tenperaturak jasan behar izan dituzte aste barruan. Azken lan-saioan 66 kilometro egin ahal izan zituzten, kometei esker; baina nahi baino haize gutxiago dabil. Erretratuan, Vallejoren plano motza, hotz aurpegiarekin.

BAT BASQUE TEAM

Debagoieneko selekzioaren erretratua, duela bi urteko txapelketan. | ARIZMENDI

FUTBOLA

Debagoieneko neskak gertu handien kontra jokatzeko

- Abenduaren 31n jokatuko dute Gabonetako emakumezkoen txapelketa
- Ibarreko selekzioa, Reala, Athletic eta Eibar izango dira lehian

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Arizmendik antolatuta abenduaren 31n egingo dute Gabonetako emakumezkoen 7. torneoa (Ibarra futbol zelaian). Antolatzaileek datorren astean egingo dute txapelketaren aurkezpena, baina dagoeneko aditzera eman dute Debagoieneko selekzioa osatuko duten jokalarien zerrenda. Hala, behean dituzuen 20 jokalariak ahaleginduko dira maila goreneko Reala eta Athletic ezustean harrapatzen, baita Eibar ere.

DEBAGOIENEKO SELEKZIOA:

	POSTUA	HERRIA
Mireia Arregi	Atezaina	**Bergara**
Oihana Aldai	Atezaina	**Aretxabaleta**
Ariane Unanue	Atzelaria	**Aretxabaleta**
Maialen Esnaola	Atzelaria	**Bergara**
Araitz Etxabe	Atzelaria	**Arrasate**
Marta Lizarralde	Atzelaria	**Arrasate**
Andere Etxabe	Atzelaria	**Aretxabaleta**
Vanesa Da Costa	Atzelaria	**Arrasate**
Garazi Nogueiras	Atzelaria	**Arrasate**
Ane Gartzia	Erdilaria	**Aretxabaleta**
Maialen Arregi	Erdilaria	**Bergara**
Alaine Roa	Erdilaria	**Arrasate**
Ane Beraza	Erdilaria	**Arrasate**
Ane Lur Garin	Erdilaria	**Arrasate**
Jone Agirregabiria	Erdilaria	**Arrasate**
Olatz Legarda	Erdilaria	**Arrasate**
Maialen Zabaleta	Aurrelaria	**Arrasate**
Ane Vicente	Aurrelaria	**Bergara**
Ainhoa Alonso	Aurrelaria	**Bergara**
Maitane Roa	Aurrelaria	**Arrasate**
HAUTATZAILEAK		
Aritz Elortza	Arizmendi	
Jon Zuluaga	Mondra	
Andoni Ezkurra	Mondra	

Iaz arte Debagoieneko selekzioak denboraldian zehar kontrario ziren neskak batzen zituen talde batean, eta horrek bazuen xarma berezia. Orain ere bai, baina Mondrako eta Arizmendiko taldeak ez dabiltza kategoria berean. Horrek on egingo dio selekzioari, Arrasateko neskak maila bat gorago jokatzera ohitu behar izan direlako azken hilabete hauetan, azkarrago.

Entrenamendu saioak

Urteko azken egunean jokatuko duten txapelketa prestatu ahal izateko selekzioko ordezkariek bi entrenamendu saio egingo dituzte. Abenduaren 28an (19:00) Mojategin egingo dute lan-saioa, eta hilaren 30ean, torneoaren bezperan Ibarran batuko dira (19:00).

Urtero moduan hainbat helburu izango ditu torneoak: emakumezkoen futbola sustatu, Euskal Herriko maila goreneko taldeak gurera erakarri eta ibarreko ordezkariei halako txapelketa bat jokatzeko aukera eskaini, besteak beste. Aurreratu moduan, aurten zazpi urte beteko ditu torneo horrek, eta urtetik urtera geroago eta alde txikiagoa dago bisitarien eta debagoiendarren artean. Iaz etxeko neskek 1-0 hartu zuten mendean Eibar, eta hirugarren sailkatu ziren, Athleticen eta Realaren atzetik.

Gaztetxoak, hilaren 30ean

Nagusien torneoaz batera, egun bat lehenago antolatuko du Arizmendik alebin, infantil eta kadete mailako emakumezkoen futbol txapelketa. Horiek ere Ibarran jokatuko dute, 09:00etan hasita.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHENENGO MAILA
Vila-Real-Reala
Domeka. 16:00. El Madrigal.

EMAKUM. BIG. MAILA
AD San Juan-Mondra
Domeka. 16:30. Mojategi.

GAZTEEN EUSKAL LIGA
Aretxabaleta-San Martin
Domeka. 12:00. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA
Bergara-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Agorrosin.
Mondra-Real Union
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta-Beti Gazte
Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Aretxabaleta-Lagun Onak
Eguena. 16:30. Ibarra.
Antzuola-Ordizia
Zapatua. 16:00. Estala.

LEHEN ERREGIONALA
Eibartarrak-Aretxabaleta C
Zapatua.15:30. Unbe.
Mondra-SBB Mutrikuarrak
Zapatua. 16:30. Ibarra.

GAZTEEN OHOREZKO MAILA
Aloña Mendi-Billabona
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Mondra
Zapatua. 17:30. Ipintza.

GAZTEEN LEHEN MAILA
Arizmendi-Eibartarrak
Eguena. 12:00. Almen.
Aretxabaleta B-Urki
Zapatua. 16:30. Ibarra.
Eibartarrak-Bergara
Zapatua. 12:30. Unbe.
Aloña Mendi-Soraluze
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

EMAKUMEZKOEN LIGA
Zumaiako- Arizmendi
Zapatua. 16:00. Aita Mari.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Lagun Onak-Eskoriatza
Zapatua. 17:30. Urreta.

BIGARREN MAILA
Atsedena.

KADETE MUTILAK
Atsedena.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Corazonistas-Soraluce BKE
Zapatua. 18:30. Gasteiz.
Ford Mugarri
Atzeratua

EKUMEZKOAK PREF.
Atzeratua.

GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK
Egia-Talleres Chapime
Zapatua. 18:15. Egia.
Ordizia-Mondragon Lingua
Zapatua. 17:30. Majori.
Usurbil-Bergara
Zapatua. 13:00. Oiardo.

KADETE GIZONEZK.
Berezao Aloña-Ordizia
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

KADETE MAILA, EMAKUM.
Zalla-Aloña B
Zapatua. 12:00. Zumaia.
Egia BeraBera-Aloña A
Zapatua. 16:45. Egiako.

SASKIBALOIA

EBA
CD Estela-Natra Oñati
Zapatua. 18:30. Santander.

LEHEN NAZIONAL MAILA
Leihoak Zarautz-MU
Domeka.17:00. Zarautz

BIGARREN SENIOR MAILA
Aloña Mendi-Errotaundi
Zapatua.16:00. Zubikoa.

HIRUG. SENIOR MAILA
MU B-Ruibal
Zapatua.16:00. Musakola

EMAKUMEZKOAK
STL Bilintx-Eskoriatza
Zapatua.16:00. Donostia.

A.ARANDO

'EUSKARAZ BIZI NAHI DUT' Arrasate eskubaloi taldekoek halaxe ospatu nahi izan zuten Euskararen Eguna. Gainera, aurreratutako partiduan 22-33 irabazi zioten Deustori.

FUTBOLA

Hiru urteko zigorra Mondrako jokalaria kolpatzeagatik

Hori da Gipuzkoako Fiskaltzak eskatzen duena Ondarroako Aurrera taldeko aurrelari batek Mondrako atzelari bat kolpatzeagatik. Gertaera hori aurreko denboraldian gertatu zen, urtarrilaren 22an. Baloiagatik borrokan ibili barik, Ondarroako jokalaria atzetik gerturatu zitzaion Arrasateko atzelariari eta aurpegian ukabilkada eman zion, eta sudurra hautsi. Arrasateko atzelariak odoletan erretiratu behar izan zuen aldagelara, erasotzailea "merezita zeukan" esaten zebilen bitartean. Fiskaltzak hiru urteko kartzela zigorra eta 740 euroko kalte-ordaina eskatu ditu.

ESKUBALOIA

Corazonistas taldearen kantxara Soraluce BKE bihar, zapatua

Kirol askotan jardunaldi berezia izango da asteburukoa, zubia tarteko talde askok partidua atzeratu edo aurreratu egin dutelako. Hori da Ford Mugarriren kasua, Deustoko unibertsitatearen kontrako partidua dagoeneko jokatu eta irabazi duela.

Soraluce BKE taldeko jokalariendako, berriz, asteburu normala izango da. Hala, bihar, zapatua, Josetxo Muniategiren mutilek sailkapenean puntu bat gehiago duen Corazonistas taldearen kantxara joango dira. Azkeneko lau postuetako multzoan ez badaude ere, Bergarari ez zaio erlaxatzea komeni.

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

KULTURA

Gizakiaren ahultasuna erakusten duen antzezlana

- Teatro Paraisok 'Ezetz hegan egin' antzezlana eskainiko du zapatuan
- Xabi Payak itzuli du Mathias Simons eta Dino Corradiniren lana

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Etxeko txikiendako antzezlana eskainiko du Teatro Paraiso taldeak zapatuan, Amaia antzokian, 17:00etan. *Ezetz hegan egin* lana ekarriko dute, lau txori bitxik eskainitako elezahar zoragarria.

Aldaketa klimatikoaz berba egingo du antzezlanak, eta horren harira hainbat eduki landuko dituzte: arrazakeria, arduragabetasuna, boterearen grina, norberekeria... Aldi berean, baina, elkarren arteko laguntza, elkartasuna eta errespetua ere landuko dituzte. Horretarako, pertsonen antzerakoak diren animaliak erabiliko dituzte.

Antzezlaneko protagonistak. | TEATRO PARAISO

Inguruarekiko mendekotasuna

Hondamendi natural bat gertatzen denean, azken mendeetako aurrerakuntza teknologikoak nabariak badira ere, gizakiek babes-gabezia sentitzen dute. Kataklismo batek gizakiaren ahulezia eta inguruarekiko mendekotasun bizia gogora ekartzen du.

Halako hondamendi baten aurrean, Uharte Ozeaniarrean bizi diren Tourons txoriek beste latitude batera ihes egiteko premia ikusiko dute. Bizirik irauteko, ahulenak lurrean uztea beharrezkoa izango da, baldarki hegan egiten dutenak edota hegan egin ezin dutenak, alegia. Horiek tribuko ezinduak bezala agertuko dira.

Katrina urakanaren ondoren

Ikuskizunaren jatorria Katrina urakanean egon zela azaldu du Eriz Alberdi aktoreak: "Baliabide gutxien zituztenak abandonatuta geratu ziren", azaldu du.

Taldeak ihes egin ondoren bakarrik geratu diren lau txorien artean borroka hasiko da, baina gerora adiskidetasuna ere sortuko da. 7 urtetik gorako umeei zuzendutako antzezlana da. Modu samurrean idatzita egoteak ez du esan gura modu sinplean izango denik: jorratuko diren gaiekin edonork ikas dezake.

Euskarazko itzulpena Xabi Payak egin du. Alberdiren ustez, gaztelerazkoaren maila berdindu edo gainditu egin du. Antzezlanerako sarrerak 4 eurotan jarriko dituzte salgai, Amaia antzokian, zapatuan bertan.

TEATRO PARAISO

ERIZ ALBERDI
AKTOREA

"Jendeak gustura hartu du lana eta gu ere oso pozik gaude"

Arrate del Pino, Javier Fernadez, Urtza Zuazo eta Eriz Alberdi izango dira protagonistak. Alberdirekin berba egin dugu.

Nola kontatuko duzue istorioa?

Lau aktoreak lau txori izango gara, eta gure lana egiteko gorputza, ahotsa eta postura erabiliko ditugu.

Nolako harrera izan du lanak?

Oso ona. Jendeari asko gustatu zaio eta gu ere pozik gaude. Gustura gaude eta hori nabaritu egiten da. Gai askotan sakontzen du antzezlanak; arrazakerian, adibidez. Egungo gaia da hori, adibidez.

Nazioarteko akordeoilarien lehia estua Iosif Purits errusiarrak irabazi du

Martitzenean egin zuten nazioarteko XIX. Arrasate Hiria txapelketako sari banaketa Amaian

A.E. | ARRASATE

Iosif Purits errusiarrak eskuratu du XIX. Arrasateko nazioarteko akordeoi txapelketako Arrasate Hiria saria. Diploma, *Arrasateko Dragoia* garaikurra, 3.600 euro eta 2012ko kontzertu gira irabazi ditu Puritsek. Bigarren saria Finlandiako Harri Kuusijarvirendako izan da; eta hirugarrena Danimarkako Live Bergerren eta Errusiako Alexey Nefedoven artean banatu dute.

Nazioarteko txapelketan 16 akordeoilarik parte hartu dute eta horietatik bederatzi iritsi ziren martitzeneko finalera. Antolatzaileen esanetan, aurtengo epaimahaiaren lana oso zaila izan da; izan ere, parte-hartzaileen "kalitate tekniko eta musikala" oso handia izan da.

Iosif Purits, txapelarekin, eta gainerako saridunak sari banaketa ekitaldian. | HAUSPOZ

DATUA

345

AKORDEOILARI

Zapatutik martitzenera 345 akordeoilarik jo zuten Arrasaten.

Gipuzkoako lehiaketa

Nazioarteko sariez gain, martitzenean, Gipuzkoako 32. lehiaketako sariak ere banatu zituzten. Estatu osotik etorritako musikariek parte hartu zuten lehiaketan. Senior mailan lehena Olga Morral (Katalunia) izan da; gazte mailako garailea, berriz, Lore Amenabar (Gipuzkoa); eta haur mailan, Sara Otaegi (Gipuzkoa) nagusitu da. Martitzeneko sari banaketara joandakoek Ugarte anaien txalapartarekin eta Xuira aireko zirku emanaldiarekin gozatu zuten, gainera.

Hauspoz elkarteak antolatu

Arrasaten jokatzen den txapelketa Hauspoz elkarteak antolatzen du eta dagoeneko erreferente da Estatu mailan eta baita nazioartean ere. Joan zen zapatutik gaur arte 345 akordeoilarik jo dute Arrasateko agertokietan: Arizmendi Ikastolan, Kulturaten eta Amaia antzokian. Hamabi herrialdetako eta hamar erkidegotako akordeoi joleak izan dira Arrasaten euren lana eta musika eskaintzen. Maila handiko musikariak, duda barik.

Sasien gainean eta hodeien azpian dagoenaz abestuko du

Ruper Ordorikak eta Joseba Irazokik kontzertua eskainiko dute Espaloian

ARANTZAZU EZKIBEL | ELGETA

Hodeien azpian diskoa aurkeztuko du Elgetan Ruper Ordorika musikariak. Kontzertua domekan izango da, 19:00etan. Ruper Ordorikaren aurretik Joseba Irazokik joko du.

Kontzerturako sarrerak aurrez jarri dituzte salgai 10 eurotan –8 euro bazkideendako–; eta egunean bertan ere salduko dituzte, leihatilan.

Zuzenekoan, Mugalariekin

Azaroan aurkeztu zuen diskoa Ordorikak. Aurreko lanen moduan, New Yorken grabatu zituen abestiak eta azken ukituak hemen egin ditu. Betiko musikariekin grabatu du oñatiarrak; baina, aurreko diskoekin alderatuta, aldaketa txiki bat izan du: orain arte gitarra jotzaile lanetan ibili den Ben Monderren ordez Stephen Ulrichek egin ditu lanok oraingoan. Monderrek asko janzten ditu abestiak harmonikoki; eta Ulrich, berriz, zehatzagoa da, abesti biluziagoak dira.

Hori, grabazioei dagokienez. Izan ere, zuzenekoetan Mugalarien laguntza izango du oñatiarrak –Hasier Oleaga, Lutxo Neira eta Arkaitz Miner.

11 abestiz osatutako diskoa

11 abesti sartu ditu Ordorikak disko berrian. Aurkezpenean Goienari azaldu zion ez dagoela gai konkreturik lan berrian, "Hodeien azpian eta sasien gainean" dagoenaz dihardu. Kantuak jorratzen dituzten gai nagusiak betikoak dira: maitasuna, gorrotoa, ahaztura, oroitzapenak, alaitasuna... kantuaren gai arketipikoak horiek direla azaldu du. Gaineratu du gehienetan melodiak agintzen duela abestiari letra jartzerakoan.

Ruper Ordorika oñatiarra. | GOIENA

DATUA

16

DISKO

Diskografian 20. disko moduan azaltzen den arren, oñatiarrak dio 16.a dela, hainbat disko bildumak dira-eta.

11 abestiak hauek dira: *Nirekin geratu*, *Eliasen etxea*, *Mundua biltzen duen oihartzuna*, *Zuhaitz eroria*, *Ez beldurrik izan*, *Nora zoaz bakarrik?*, *Zilarra aurkitu nuenekoa*, *Ezbaieko gogoan*, *Onerako da*, *Banekien eta India kaletik*. *Nora zoaz bakarrik?* abestiak *Maritxu nora zoaz* abesti herrikoia du oinarrian.

Bada, dagoeneko hainbat kontzertu eskaini ditu Ordorikak, eta diskoak orain arte harrera ona izan du.

Joseba Irazoki

Irazokik Ordorikaren aurretik joko du Espaloian. 19:00etan hasiko da kontzertua eta 30 minutu iraungo du Joseba Irazokiren emanaldiak.

Urtea bukatu aurretik beste hiru kontzertu eskainiko ditu Ordorikak: hilaren 16an Urretxuko Labeaga aretoan, 23:00etan; hilaren 23an Bilboko Kafe Antzokian, 21:30ean; eta abenduaren 29an Donostiako Victoria Eugenian, 20:00etan. 2012ko hitzordu batzuk ere prest ditu dagoeneko: lehenengo kontzertua urtarrilaren 7an izango da, Durangoko Plateruenan.

Petti eta Xabiren musika akustikoa Anttonen gaur

A.E. | OÑATI

Señor No donostiarren buru izan dena eta Petti beratarrak kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Antton tabernan, 20:00etan.

Bi musikariek indarrak batu dituzte zenbait emanaldi zuzenean egiteko. Rock-and-rolla ikusteko modu ezberdina dute; hala ere, bertsio sorta bat egin eta txinparta sortzea lortu dute. Zenbait kanturen moldaketak prestatu dituzte bi gitarrarekin aritzeko, non, besteak beste, Pettiren kantuak, Xabik Señor Norekin egindakoak eta aukeraturiko zenbait bertsio eskainiko dituzten zuzenean.

Ray Charles, The Beatles, Jimi Hendrix, Rory Gallagher, David Bowie, John Hiatt, Bill Kirchen, Chris Cacavas, Deke Dickerson eta Big Sandy musikarien bertsioak egin izan dituzte; gaur, eurek sortutakoak ere eskainiko dituzte.

Blues eta folk sustraiak

Petti blues eta folk doinuetan da maisua, baina Barrence Whitfieldekin izandako bizipenaren ondoren, rocka ezagutu zuen. Euskal Herriko bakarlari original horietako bat da Petti. Whitfieldekin batera diskoa aurkeztu zuen Pettik 2010ean. Denbora laburrean sortutako diskoa da, bi musikariek modu naturalean sortutakoa. Abeslari berataarrak aurretik egin izan ditu horrelako diskoak Anari, Txuma Murugarren eta Rafa Ruedarekin.

Xabi, ostera, rock-and-rollean ibilia, agertokietan *animalia* da. Bien indarrak berotu eta girotuko du gaua. Emanaldi akustiko baina indartsua egingo dute.

Zea Mays bilbotarrek jarraituko dute abenduko eguenetako egitaraua

A.E. | ARRASATE

Abenduko bigarren eguenean atsedenaldia hartu du *Kooltur ostegunak* ekimenak, baina datorren asteari begira indarberrituta dator, Zea Mays bilbotarren emanaldiarekin.

Abenduaren 15ean, 22:00etan, izango da kontzertua. Beti bezala, gaztetxean egingo dute, 5 euroren truke.

Arrakasta lortu duen taldea

Gaur egungo euskal musikaren esparruan arrakasta handia lortu duen taldea da Zea Mays. Hain zuzen ere, Aiora Renteria buru duen talde bilbotarrak hainbat arrakasta lortu ditu azkenaldian. *Negua joan da ta* abestia izan da aurtengo arrakastetako bat, baina ez bakarra; izan ere, dagoeneko ereserki bihurtu den *Kukutza III* abestiarekin ere arrakasta lortu dute bilbotarrek.

Iñaki Imaz *Pitti* gitarra jotzailea, Ruben Gonzalez baxu jotzailea eta Asier Basabe bateria jotzailea dira gainerako taldekideak.

Zea Maysek Aramaioko jaietan egindako kontzertua. | JOSETXO ARANTZABAL

Makala doan izango da

Kooltur Ekintza taldearen ekimenak indarra hartuko du abenduaren 22ko gauean. Santamas eguna dela aprobetxatuta, doan izango da kontzertua: Makalak jarriko du musika gaztetxean.

Makala DJa Europan zehar dabil lan berria aurkezten. Hainbat jaialditan arrakasta lortu du eta nazioarte mailako DJen onespena ere jaso du. *Swinging the Afro Mambo* EPa aurkezten ibili da udatik gaur arte.

Hainbat estilo nahasten ditu emanaldietan, eta, azkenaldian, beats elektronikoz lagundutako latin, boogaloo, cumbia, rumba, soul, funk eta swing-and-jazz-and-ska doinuak proposatzen dihardu. Makalaren saioetan ez da dantza egiteko eta ondo pasatzeko aukerarik falta izaten.

Azken emanaldia: Ihesbide

Abenduaren 29an Ihesbide taldeak eskainiko du kontzertua. 2004an Elorrion sortutako taldeak punk-rock musika egiten du.

Hurrengo emanaldiei begira, Kooltur Ekintza taldeak aurreratu du Gramones! taldeak joko duela gaztetxean.

Ines Osinaga. | GOIENA

Juan Ramon Garai. | GOIENA

Kepa Errasti. | GOIENA

Juan Carlos Irizar. | GOIENA

Azoka berritzaileenean ere izan dira sortzaile debagoiendarrak

Postuetan eta zuzenekoetan parte hartu dute; askok, lehenengo aldiz

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Durangoko Azokak aro berri bat hasi du: kultura produktuak hainbat euskarritan eta modutan etortzen dira gaur egun, eta horren isla da azoka, gune berriekin eta formatu berriekin. Eta, beste behin, debagoiendarrak ere hortxe izan dira.

Abenduaren 6tik 8ra iraun zuen Irudieneak, euskarazko ikus-entzunezkoen sortzaileen guneak. Bertan, Asier Altuna zinegile bergararrak parte-hartze handia izan du: bere bi lan, *Artaldea* eta *Bertsolari*, eman dituzte Irudienean, eta *Zeluloidezko begiradak* delako liburuaren aurkezpeneko mahai-inguruan egon zen.

Ain_1 taldea. | GOIENA

"Beste buelta bat"

Irudienean egon zen ere Arrasateko Gose taldea, Musiklipak saioan euren bideo-klipa aurkezten. Baina hori baino lehenago, Intxorta 1937 Kultur Elkarteak argitaratutako Gerrako ipuinak liburuaren Noiz arte justiziarik gabe CDa aurkezteko kontzertuan parte hartu zuen, Ahotsenean. Gose *Des-piezak* diskoa saltzen egon da Durangon, eta Ines Osinaga kidearen esanetan, "azokan egotea beti da positiboa; asko eskertzen dugu jendearenganako harremana". Ahotsenearen gainean, hauxe dio: "Aukera eman digute gure lana aurkezteko, eta azokari beste buelta bat eman diote".

"Ahotsenea formatu ona da"

Intxorta elkartekoek lehen urtea zuten azokan. Juan Ramon Garai kidea "oso pozik" dago, izan ere, pentsatzen zuten baino gehiago saldu dute. 12 produktu eraman dituzte. Gehien *Gerrako garrak Oñatin* eta *Gerrako ipuinak* saldu dituzte. Azken horren aurkezpen musikatua eta errezitaldia "biharamunean aldizkarietan agertu zen, eta modu ona izan da jendea guregana gerturatzeko", esaten du Garaik.

Sortzaile gisa estreinaldia izan dute ere Ain_1 taldekoek. *Musika kaxa* diskoa aurkeztu zuten. Iraitz Agirre taldekideari-rendako, "Ahotsenea oso formatu polita da, murritza izan arren; jende dezente etorri zen eta pozik geratu ginen".

Irakurketa eta antzezpena

Debuta izan du azokan ere, baina aktore gisa, Kepa Errasti aretxabaletarrak. Bizkaia Irratiak Durangoko Azokan daukan estudioan irakurketa dramatizatua egin zuen, eta zuzenean Azoka TBn eman zuten. Eusebio Erkiagaren *Antzerti yayan izan naz* testua irakurri zuen. Julia Marin zuzendariak bera eta Maite Arrese aukeratu zituen horretarako. "Euskal kulturako hain leku adierazgarrian jarduteak poztasuna eman dit", esaten du.

Ezinbesteko hitzordua

Azokako beteranoa da Juan Carlos Irizar oñatiarra, eta aurten ere hantxe egon da. Arrasate Irratiari hauxe esan dio: "Musika egitea ez zait ezer kostatzen, eta horregatik egiten dut asko. Hona etortzea oso gauza polita da. Krisia dago, baina horrelako gauzak ere egin egin behar dira".

ESANAK

"Hona etortzea gauza polita da, eta krisia egon arren, egitekoa"

JUAN CARLOS IRIZAR | MUSIKARIA

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

2 URTE BERMEA

1000 b/min
6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
SUNNY 610 GARBIGAILUA
275 € edesa

2 URTE BERMEA

1200 b/min
6 Kg
A++ Sailkapen energetikoa
3F-2612 GARBIGAILUA
315 € FAGOR

2 URTE BERMEA

1200 b/min
8 Kg
A+++ Sailkapen energetikoa
F-2812 GARBIGAILUA
430 € FAGOR

2 URTE BERMEA

A+ Sailkapen energetikoa
2LF-013SX ONTZI-GARBIGAILUA
395 € FAGOR

2 URTE BERMEA

8 Kg
B Sailkapen energetikoa
1SF-84CE KONDENTSAZIOZKO LEHORGAILUA
399 € FAGOR

2 URTE BERMEA

A Sailkapen energetikoa
LABE PIROLITIKOA HOLLY-HP5X
INDUKZIO PLAKA HOLLY-I3S
625 € edesa

2 URTE BERMEA

A+ Sailkapen energetikoa
STA 1410 B/N LABEA
ETA BITROZERAMIKA
360 € aspes

2 URTE BERMEA

1440 x 545 x 600
A+ Sailkapen energetikoa
ZEN-F211 HOZKAILUA
310 € edesa

"BRITA" OPARI
1 URTE BERMEA

1850 x 600 x 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
FFJ-6725 HOZKAILUA
575 € FAGOR

1 URTE BERMEA

2000 x 600 x 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
FFK-6835X HOZKAILUA
675 € FAGOR

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3an.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

Maialen Arratibel | Abeslaria eta musikaria

"Inguruan gertatzen dena jendeari helaraztea gustatuko litzaidake etorkizunean"

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Kantua eta gitarra dira Maialen Arratibel arrasatearraren zaletasun bi, baina, horrez gain, idaztea ere asko gustatzen zaio. Horregatik, Kazetaritza ikasketak hasi ditu aurten Bilbon eta etorkizunean euskarazko hedabide batean lan egitea gustatuko litzaioke; aukeran, idatzizko prentsan.

Gipuzkoako Kantu Txapelketan hartu duzu parte aurten, baina ez da lehenengo urtea izan, ezta?

Ez. Aurten parte hartu dudan hirugarren aldia izan da. Hiruretan aurkeztu naiz Eneritz Urrutiarekin bikotea osatuz.

Gustatzen zaizu txapelketetan parte hartzea?

Bai. Aukera ona iruditzen zait gure lana jendeari ezagutzera emateko, baita musikaren inguruan aritzen den jende berria ezagutzeko ere. Hala ere, txapelketak badu bere alde txarra, epaile baten iritziak egindako lana nolabait hankaz gora jar dezake-eta. Baina horri buelta ematen ere jakin behar dela uste dut.

Taula gainera igo aurretik urduri egoten zara? Nola baretzen dituzu urduritasun horiek?

Bai, oso. Urduritasuna baretzeko dudan modurik onena abestea da. Eta taula gainera igo behar ez dudanetan ere hala izaten da.

Zer nahiago duzu, taula gainean ala lagun artean abestu?

Ezberdinak dira biak. Taula gainean abesteak aurretiko lan handiagoa eskatzen duen arren, ematen duen poztasuna ere handia da. Lagun artean abestea, berriz, erosoagoa da, eta, egia esan, koadrilakoekin kantuan egiten dudanetan oso ondo pasatzen dut, barre asko egiten dugu.

Noiztik daukazu musikarako zaletasuna?

Musikarako zaletasuna betidanik izan dut. 8 urterekin-edo hasi nintzen Goikobalu abesbatzan, geroago gitarra jotzen hasi nintzen eta poliki-poliki gauza berriak egiten joan naiz.

Gitarra jotzen duzu. Beste instrumenturik?

Ez.

Eta badago jotzea gustatuko litzaizukeen beste instrumenturik?

Bai, pianoa. Urtebetez egon nintzen piano eskolak jasotzen, baina utzi egin nuen. Orain, damutu egiten naiz.

Ze aretotan gurako zenuke egunen baten kontzertu bat eman?

Bilboko Kafe Antzokian, adibidez, beste askoren artean.

Eta zeinekin?

Behin eskatzen hasita... Eñaut Elorrietarekin edo Gorka Urbizurekin.

Kazetaritza ikasten ari zara. Zergatik aukeraketa hori?

Aurten hasi ditut Kazetaritza ikasketak, Bilbon, Euskal Herriko Unibertsitatean. Idaztea oso gustuko dut eta inguruan gertatzen dena jendeari helaraztea gustatuko litzaidake etorkizunean.

Lanean non amaitzea gustatuko litzaizuke? Non ikusten duzu zure burua?

Komunikabide euskaldun baten lan egitea gustatuko litzaidake; aldizkari edo egunkari bat bada, hobeto. Izan ere, idatzizko prentsan ikusten dut nire burua. Agian, etorkizunean ni izango naiz elkarrizketatzailea. [Barre]

Bilbo ala Arrasate?

Momentuaren arabera. Batzuetan, Arrasaten itota sentitzen naiz eta Bilbok airez, jendez.... aldatzeko aukera ematen dit. Horregatik, askotan nahiago izaten dut hirian egon. Hala ere, ostiraletan gustura bueltatzen naiz etxera; koadrilakoekin eta familiarekin egoteko. Bilbok ez daukana Arrasaten aurkitzen dut, eta alderantziz.

Gabonak ate joka ditugu. Ze opari eskatuko diozu Olentzerori?

Ahal izanez gero, denbora eskatuko nioke. Askotan, egunak dituen hogeita lau orduak motz gelditzen zaizkit eta...

Zintzoa izan zara?

[Barre] Hori, niri baino gehiago, ingurukoei galdetu beharko zaie, baina ez dut uste gaiztoa izan naizenik aurten... Olentzerok badaki hori.

MARRA AZKARREZ

Musika talde bat: Katamalo.

Irakurri duzun azken liburua: Karmele Jaioren *Amaren eskuak.*

Film bat: *El club de los poetas muertos.*

Arrasateko txoko kuttuna: Udala.

Bilboko txoko kuttuna: Alde zaharra.

Usain bat: Udan euria egiten duenean kalean gelditzen den hezetasunarena.

Ahaztuko ez duzun momentua: Koadrilako bazkari baten mahai gainean dantzan bukatu genuenekoa.

Zure poltsan falta ez den hori: Ezpainetako kakaoa.

Kantua eta gitarra dira Maialen Arratibelen bi zaletasunak.

LARRAITZ ZEBERIO

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Beheko auzoa 1 zenbakian etxebizitza salgai. Berritua. 120.000 euro negoziagarriak. 943 72 27 86

Bergara. Etxebizitza eguzkitsua salgai Artzamendi kalean. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela handia. Garaje eta trastelekuarekin. Jantzia. 150.253 euro. 629 97 37 05 edo 943 76 05 22

Oleta. 5 urteko etxe bakarra salgai. Lursaila dauka. Bizitzera joateko prest dago. Prezio interesgarria. Etxea trukatzeko ere aukera egon daiteke. Idatzi *camilabagues@gmail.com* helbidera edo deitu 945 45 05 15 edo 645 73 82 31 telefono zenbakietara.

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukalde hornitua, jangela-egongela, bi logela eta bainugela. Jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. 252.000 euro. 35 metro koadroko garajea aukeran. Iñigo. Deitu 659 72 06 64 telefono zenbakira.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Biteri kalean, Grupo San Juanen. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Ganbara. Jantzia. Deitu 605 43 29 31 telefono zenbakira.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan. Bikotea gara, neskatila batekin. Presazkoa da. 666 98 25 45

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. 500-600 euro ordaintzeko gertu nago. Brigitte Castro. 664 51 64 98

Logela bakarreko pisua. Bikote langilea, umerik gabea, estudio edo logela bakarreko pisu bila Arrasaten, Oñatin edo Bergaran. 652 76 67 04

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Deitu 678 73 66 54 telefonora.

Arrasate. Pisukide bila nabil. Erdigunean dago etxea. Ione. Deitu 636 05 36 18 telefono zenbakira.

Bergara. edo inguruan errentan hartzeko logela bila nabil. Mutila naiz. Lehenbailehen hobe. 672 68 57 77

106. BESTELAKOAK

Trukea. Aramaioko etxe txukuna trukatuko nuke Arrasateko antzeko bategatik. Deitu 636 64 90 94 telefonroa.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Bolu auzoko frontoian garaje plaza bat saltzen da. 677 51 16 22

3. LOKALAK

301. SALDU

Aretxabaleta. Lokala salgai erdigunean. Oso ekonomiko. Deitu 609 44 50 86 telefono zenbakira.

302. EROSI

Bergara. Lokal bila gabiltza, erosteko, San Lorentzo edo Matxiategi aldean. Deitu 605 76 32 72 telefono zenbakira.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

AZPEITXI JATETXEA
Zerbitzaria behar da barrarako.
943 76 55 00

